


GARAPENAREN ALDEKO NAZIOARTEKO LANKIDETZAREN IRUÑEKO II. PLAN ZUZENTZAILEA (2022-2025)



AURKIBIDEA

AKRONIMOAK	4
AURKEZPENA.....	5
1. SARRERA ETA II. PLAN ZUZENTZAILE HONEN IRISMENA	7
2. KANPOKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA.....	8
2.1 GHJen eta 2030 Agendaren esparru globala	8
2.2 Berdintasuna, generoa eta emakumeen ahalduntzea	9
2.3 Laguntzaren koherentzia eta eraginkortasuna	9
2.4 Estatuko, Nafarroako eta tokiko arau-esparrua eta esparru estrategikoa	10
3. LANKIDETZAKO UDAL PROGRAMA	11
3.1 Programaren egitura eta helburuak	11
3.2 Lan-ildoak eta tresnak	11
4. I. PLAN ZUZENTZAILEAREN EBALUAZIOAREN IKASKUNTZAK	14
4.1 Udal Programari buruzko datuak I. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean	14
4.2 I. Plan Zuzentzailearen helburuen/jomugen betetze-maila	17
4.3 Ebaluaziotik ikasitako gomendioak eta lezioak	19
5. II. PLAN ZUZENTZAILEAREN PRINTZPIOAK ETA BEREZKO EZAUGARRIAK	21
5.1 Gure misioa	21
5.2 Gure ikuspegia	21
5.3 Gure oinarrizko printzipioak.....	21
5.4 Udal Programarako funtsezko eragileak	23
5.5 Udalaren beste zerbitzu batzuekin koordinatzearen garrantzia.....	25
6. II. PLAN HONEN ILDO ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	28
6.1 Iruñeko GGKEei laguntzeko tresnen koherentzia eta inpaktua hobetzea, funtseko eragile diren heinean.....	29
6.2 GNLUParen berezko rola, jarduna eta balio erantsia indartzea	29
6.3 GNLUParen eta Iruñeko beste udal-zerbitzu batzuen arteko koordinazioa eta osagarritasun politikoa eta instituzionala bultzatzea	29
6.4 GNLUParen eta lankidetzako funtsezko beste eragile batzuen arteko koordinazioa eta sinergiak hobetzea	30
6.5 GNLUParen gardentasuna, ikusgaitasuna eta babesa areagotzea Iruñeko herritarren eta funtsezko beste eragile batzuen artean.....	30

7. II. PLAN ZUZENTZAILERAKO JOMUGAK ETA ADIERAZLE OPERATIBOAK	31
8. AURREIKUSITAKO AURREKONTUA MODALITATE ETA TRESNEN ARABERA	41
9. II. PLAN ZUZENTZAILEAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	42
9.1 Urteko Plan Operatiboak	42
9.2 Urteko memoriak.....	42
9.3 Plan Zuzentzailearen ebaluazioa	43
ERANSKINA: KONTSULTATU DIREN DOKUMENTUAK	44

AKRONIMOAK

- **AECID:** Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia
- **LHL:** Laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa
- **APS:** Unea uneko Sentsibilizazio-jarduerak
- **CAD:** Garapenaren aldeko Laguntza-batzordea
- **GLUK:** Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseilua (Iruñekoa)
- **NGGKEK:** Nafarroako GGKEen Koordinakundea
- **CRS:** Emaileak informatzeko sistema ("Creditor Reporting System")
- **GE:** Giza Eskubideak
- **GEI:** Giza Eskubideak Oinarri dituen Ikuspegia
- **GHS:** Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa
- **TE:** Toki-erakundeak (Hegoaldekoak)
- **GH:** Garapenerako Hezkuntza
- **FEMP:** Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa
- **LNTK:** Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtza
- **NUKF:** Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- **NAF. GOB.:** Nafarroako Gobernua
- **IHH:** Iruñea Harrera Hiria
- **GGI:** Giza Garapeneko Indizea
- **LGTBI:** Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Kolektiboa
- **MGH:** Milurtekoko Garapen Helburuak
- **GJH:** Garapen Jasangarrirako Helburuak
- **UGP:** Udalaren Garapen-planak
- **GEP:** Gizarte Erakundeen Plataforma
- **GNLUP:** Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzarako Udal Programak
- **UPO:** Urteko Plan Operatiboa
- **NUP:** Nafarroako Unibertsitate Publikoa

AURKEZPENA

Iruñeko Udalak konpromisoa du nazioarteko lankidetzarekin eta garapenerako hezkuntzarekin, udal-politika egonkorra eta epe luzekoa izan dadin. Hori bideratzeko, **Garapenaren aldeko Nazioarteko Lankidetzarako Udal Programa** (aurrerantzean GNLUP edo Udal Programa) sortu zen duela 25 urte baino gehiago (1996an); bertan, helburu eta lehentasun zehatzak jaso ziren, gardenak eta ongi definituak, eta urteetan zehar bere horretan mantendu dira. Horrez gain, eta hau oso adierazgarria da, Iruñeko Udala **hasieratik urteko aurrekontuaren % 0,7 gutxienez lankidetzara bideratzeko konpromisoa** bete duten eta aldatu gabe eutsi dioten estatu osoko erakunde publiko gutxietako bat izan da, baita duela gutxiko krisi ekonomiko eta osasun-krisi globaletan ere.

Aipatu Udal Programaren barruan Iruñeko Udala **herritarren elkartasuna sustatzen eta bideratzen** aritu da behar handiena duten herrialdeekiko, Hegoaldeko herrialde esaten zaien horiekiko. Elkartasun hori, nagusiki, herrialde horietan egindako **lankidetzako proiektuen** bitartez gauzatu da, udalerrian aktibo dauden GGKE ugariak eta horien tokian tokiko kideak bultzatuta eta kudeatuta. Halaber, azken hamarkadetan, Iruñeko Udalak laguntza eman du munduan pobrezia eta desberdintasunak eragiten dituzten egiturazko kausei buruz **herritarrak sentsibilizatu eta hezteko**, baita guk horretan dugun erantzukizunari buruz ere, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa dela.

Arau aldetik, eragina aintzat hartzen da: Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, eta baita Garapenerako Lankidetzari buruzko apirilaren 6ko 4/2010 Foru Legean, zein Beijing+20 gailurrean edo Garapen Iraunkorreko Helburuetan (5. GJH) hartutako konpromisoetan.

2018tik aurrera, erabaki zen urrats bat gehiago ematea eta **esparru estrategiko sistematikoago, zabalago eta sakonago** batez hornitzea garapenaren aldeko lankidetzan, konparaziozko abantaila, printzipio bereizgarri, erronka, lehentasun eta epe luzerako helburuetan sakontzeko. Esparru hori **Iruñeko Udalaren Garapenaren aldeko Lankidetzaren I. Plan Zuzentzailean** jaso zen (I. Plan Zuzentzailea), 2018-2021 aldia barne hartu duena.

Udal-programaren ezaugarri izan diren **ikaskuntza-prozesuaren eta gardentasunaren eta kontuak ematearen** barruan, programa amaitzean, 2021ean, **kanpoan ebaluatu zuten I. Plan Zuzentzailea**. Ebaluazio horren ondorioak positiboak izan ziren, eta azken 4 urteetan egindako lanaren koherentzia, garrantzia eta eragina berretsiz zuten, aldi horretarako **aurreikusitako helburu ugarien % 86 bete** baitziren. Horrez gain, ebaluazioak erakutsi du Iruñean Udalaren garapenaren aldeko lankidetzaren oso positiboki baloratzen dutela gurekin lan egiten duten eragile guztiek, batez ere GGKEek. Horregatik guztiarengatik **etorkizuneko II. Plan Zuzentzailea kontinuitate izatea** gomendatu zen, printzipio, ikuspegi, helburu handi, tresna eta modalitateei dagokienez.

Aitzitik, aipatu ebaluazioak **hobetu litezkeen hainbat esparru** ere antzeman zituen, etorkizuneko planetan txertatzeko. Halaber, ezin da alde batera utzi **testuinguru globalak aldaketa eta erronka garrantzitsuak esperimendu** dituela azken 4 urteetan, eta horiek eragin zuzena dutela garapenaren aldeko lankidetzaren esparruan. Duela gutxi izandako **COVID-19aren osasun krisiak eta haren ondorioak** eta **Ukrainako gerrak** –giza, gizarte eta ekonomia mailan duen eragina, oraindik ere bere gordinkeria osoan adierazi ez duena– gertakari horiek ulertzeko eta haiei heltzeko **begirada global baten beharra** erakusten dute, kontuan hartuta gure gizarteetan zer ondorio dituen, baina horregatik “Hegoaldean” jasaten dituztenak ahaztu gabe.

II. Plan Zuzentzaile honek aurreko I. Plan Zuzentzaileak markatutako bide onetik jarraitu nahi du, **helburu errealistak, kontinuitateak eta bideragarriak** mantenduz, eta, aldi berean, **beste berritzaileago batzuk** planteatzen ditu, Udal Programaren **erronka**, ikuspegi eta balio erantsiko ekarpen **berriak** proposatzen dituztenak hurrengo 4 urteetarako. Erabat sinetsita nago, I. Plan Zuzentzailearekin gertatu bezala, bigarren Plan hau funtsezko tresna izanen dela **Iruñean lankidetzarako udal-politikaren balioa handitzeko eta hura indartzeko**, toki esparrutik haren ezaugarri propioak eta konparaziozko abantaila garrantzitsuak aprobetxatuta.

Maria Caballero Martinez
Zinegotzi ordezkaria

1. SARRERA ETA II. PLAN ZUZENTZAILE HONEN IRISMENA

Garapenaren aldeko Lankidetzaren Iruñeko II. Plan Zuzentzaileak (aurrerantzean, II. Plan Zuzentzailea) modu ulergarrian eta sistematikoan biltzen ditu Iruñeko Udalaren **ildo nagusiak Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntzaren arloan** hurrengo 4 urtetarako (2022-2025). I. Plan Zuzentzailea bezala, II. Plan Zuzentzaile hau **helburu, emaitza, estrategia eta adierazle** zehatz, praktikoa eta operatiboa izanen dituen **barne-kudeaketako benetako tresna bihurtzea nahi dugu**, eta horiek Udal Programako talde teknikoarentzat egiazko *"aginte-koadro"* bat izatea, bai eta Iruñean lankidetzaren arloan diharduten gainerako eragileentzat ere. Hala, asmoa da horiek gerora ebaluatu ahal izatea, beharrezko gardentasuna ziurtatzeko eta herritarrei kontuak emateko.

II. Plan Zuzentzailea egiteko oinarri hartu dira bereziki I. Plan Zuzentzailearen **kanpo-ebaluazioaren ondorio, ikaskuntza eta gomendioak**. Ebaluazio horretarako kontsulta parte-hartzailea egin zitzaion Iruñean Lankidetzako eta Garapenerako Hezkuntzako jardueretan zuzenean edo zeharka engaiatuta dauden eragile guztiei (adib. Udal Programa, Udaleko beste alor batzuk, Gobernu Kanpoko Erakunde Nafarroako Koordinakundea Elkartea-NGGKEK, Nafarroako Gobernua, Lankidetzako Udal Kontseilua, Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtza). Horregatik, eta jardueren kontsultez gehiegi ez kargatzeko eta/edo horiek ez bikoizteko, **ebaluazioa egiteko parte hartzeko prozesu hura baliatu zen eragile guztiek II. Plan Zuzentzailea izan zenaren ikuspegi, helburu, tresna eta lehentasunei buruz zuten iritzia ezagutzeko**, eta ez zen beharrezkoa izan II. Plan hori idazteko berriz ere deialdi bat egitea. Hala eta guztiz ere, **planaren zirriborroen kontsulta-, aurkezpen- eta eztabaida-prozesuak** mantendu dira funtsezko eragileekin, batez ere Lankidetzako Udal Kontseiluarekin (aurrerantzean, Udal Kontseilua) eta Nafarroako GGKEen Koordinakundearekin (aurrerantzean, Koordinakundea).

Haren ikuspegi praktikoarekin bat, II. Plan Zuzentzaile honek **oso eta ulergarria izan nahi du**, eta Udalaren lankidetzarako modalitate eta tresna guztietarako helburuak eta estrategiak ezarri nahi ditu. I. Plan Zuzentzaileak bezala, II. Plan honen **iraupena 4 urtekoa da**. Egokiena epe hori dela ikusi da, batez ere maila estrategiko-taktikoan plangintza- eta kudeaketa-tresna gisa duen erabilgarritasuna azpimarratu nahi bada.

Dokumentu hau **bost bloke handitan** egituratu da:

- **Lehen blokea** (2. atala) **kanpoko testuinguruaren azterketari** eta horrek Iruñeko tokiko lankidetzaren-ereduan dituen ondorioei buruzkoa da
- **Bigarren blokeak** (3. atala) deskribatzen ditu Udal Programaren **egitura, helburuak eta lan-ildoak**, modalitate eta tresna bakoitza barne hartuta
- **Hirugarren blokeak** (4. atala) Iruñeko **udal-lankidetzaren diagnostikoa du ardatz**, eta aurreko I. Plan Zuzentzailearen ondorioak, gomendioak eta ikaskuntzak azpimarratzen ditu bereziki.
- **Laugarren blokeak** (5. eta 6. atalak) II. Plan Zuzentzaile honen **alderdi estrategiko edo programatikoak** ditu ardatz, eta barne hartzen du zein den nahi dugun lankidetzaren-eredua, zein eragilerekin aritu nahi dugun lankidetzan, bai eta hurrengo lau urteetarako proposatzen ditugun ildo eta helburu estrategiko nagusiak ere.
- Azkenik, **bosgarren blokea** (7., 8. eta 9. atalak) **II. Plan Zuzentzailearen alderdi zehatzago, praktikoa eta operatibagoi** buruzkoa da. Bertan, alderdi hauek jorratzen dira: lehenetsi beharreko helburu estrategikoak; urtez urte arreta jarri beharreko jomuga zehatzak, ekintzak eta adierazleak; modalitate eta tresnen arabera aurrekontuak, eta Udal Programak martxan jarri beharreko jarraipen- eta ebaluazio-sistemak.

2. KANPOKO TESTUINGURUAREN AZTERKETA

2.1 GJHen eta 2030 Agendaren esparru globala

Milurtekoko Garapen Helburuekin (MGH) jarraitzeko, nazioarteak (NBEko estatu-kideak) garapen jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuen 2015ean. **Garapen Jasangarrirako 17 Helburu** (GJH) edo Munduko Helburu ere esaten zaienak jaso dira bertan.

GJHak erdiesteko, **tokian-tokian jardun behar da ezinbestez**, hori baita herritarrak bizi diren eremua, hantxe eragiten baitie zuzenean pobrezia, hazkunde ez jasangarriak eta hor hartu behar baitira horiei aurre egiteko neurriak. Gainera, tokian tokiko maila oso aproposa da herritarrek modu aktiboan parte hartzeko eta GJHen garapenaren protagonista izateko; aproposa da, halaber, baliabideak eta inbertsioak ohi baino era bidezkoagoan banatzeko, eta hainbat eragileren arteko elkarlan-saiakerak egiteko, Garapenerako Agenda "*tokikotze*" aldera.

Bestalde, **pertsona askok uste dute GJHak aukera paregabea** direla ohituraz garapenaren aldeko lankidetzaren esku utzi den jarduna zeharkako bilakatzeko, tokian tokian behintzat, **sustatu egiten baitituzte garapen jasangarrirako politika koherenteak eta erakundeen arteko harremanak** erakunde publiko deszentralizatueta alor eta sail guztien artean, GJHetan aurreikusitako helburuak betetze aldera. Zentzu horretan, Iruñeko Udalak **2030 Estrategia - Iruñeko Hiri Agenda**¹ onetsi du. Bertan 29 helburu estrategiko biltzen dira, bost dimentsio handitan banatuta: a) Klima-aldaketa eta jasangarritasuna, b) Gizarteratzea eta auzoen arteko oreka, c) Kudeaketa publiko berritzailea, d) Kultura eta turismoa eta d) Ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia.

Haatik, **badira kritiko direnak ere**, hala GJHen definizioari berari dagokionez (oso orokorrak omen dira, lausoak eta ez-lotesleak –MGHein ere gauza bera gertatu zen–) nola, batez ere, GJH horiek garatzeko ardura duten erakunde publikoetako gobernu-programa guztietan (politiken koherentzia) helburuak zeharkako izatearen **bideragarritasun errealarri eta eraginkorrari** dagokionez, epe laburrean bederen. Egiaz, zenbaitek uste dute lankidetzako eragileei (publikoak nahiz pribatuak) esleitu ohi zaizkien zereginak, politikak eta helburuak gehiegi deszentralizatzek eta eskuordetzek, teoriar garrantzitsua den arren, horiek ahultzea ekar dezakeela, beste eragile batzuek ez baitituzte beharrezkoak diren baliabideak, ezagutzak eta gaitasunak, oraingoz behintzat.



1. irudia: Garapen Jasangarrirako Helburuak, 2030 Agenda

¹ <https://www.pamplona.es/sites/default/files/2021-06/E2030%20-%20Agenda%20Urbana%20de%20Pamplona%20FINAL.pdf>

2.2 Berdintasuna, generoa eta emakumeen ahalduntzea

Azken urteotan, **munduan aurrerapauso handiak eman dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan**. Hala ere, ekitate-eza nabaria da oraindik ia sektore guztietan, bereziki Hegoaldearen garapenarekin zuzeneko lotura dutenetan: osasuna, hezkuntza, eskubide sozial eta politikoak, lan-baldintzak, komunitateko kontuetan parte hartzea, indarkeria matxista, etab.

Munduan, genero-ekitateari eta emakumeen eskubideei zein ahalduntzeari begira, Pekingo gailurrean (1995) finkatutako printzipioak eta konpromisoak 2015ean berrikusi eta eguneratu ziren, Beijing+20 delakoan; bertan onartu zen **"2030ean mundua 50-50 izan dadin: eman dezagun genero-berdintasunerako urratsa"** ekimena. Funtsean, erabaki zuten konpromiso politikoa berritzea, gai horri buruzko eztabaida eta sentsibilizazio soziala suspertzea, ebidentzietan oinarritutako ikasketak hedatzea eta aurreko guztia egiteko eskura dauden baliabideak areagotzea.

Gurera etorrira, Iruñeko Udala duela zenbait urte hasi zen berdintasunerako planak abian jartzen. Horietatik berriena **Iruñeko III. Berdintasun Plana (2016-2022)**² da; 2015ean egin zen **Berdintasun eta LGTBIQko Alorraren** eskutik, xede hartuta hirian gizonen eta emakumeen artean dauden desberdinkeriei heltzea eta horiei buelta ematea, azterketa eta ekintza feministatik abiatuta.

II. Plan Zuzentzaile hau espresuki lerrokatzen da aipatu III. Berdintasun Planarekin, eta haren printzipio eta betekizunak kontuan hartzen ditu, batez ere, **nahitaezko Genero-inpaktuaren txostena** egitea. Horrela, kontuan hartzen dira, bereziki, genero-berdintasunaren arloan adierazitako arau-aginduei erantzuteko dauden desberdintasunak, bai eta horien ondorioak eta eraginak ere. Erantzun hori kontuan hartuta, **II. Plan Zuzentzaile honetan jasotako eduki, material eta tresna guztiek** edo haren urteko garapen operatibotik eratorritakoek (adibidez, dokumentuek, dirulaguntza-deialdi publikoen oinarriek eta abarrek) **aukera emanen dute genero-inpaktua kontuan hartzeko**.

Zehazki, Udal Programak kudeatzen dituen sei **dirulaguntza-deialdi publikoetan espresuki baloratu eta puntuatzen da genero-inpaktua**, eta proposamen guztiei informazioa eskatzen zaie jardun nahi den errealitateen testuinguruari buruz: sexuen arabera bereizitako informazioa, arreta-sektoreak (CRS kodeak) eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). **Euskarri dokumental guztietan ere gizon/emakumeen datuak bereizten dira** eta entitateei jakinarazten zaie hizkuntza inklusiboa erabili behar dutela, besteak beste.

Horrez gain, **jarduketa guztietan egoeren deskribapena aurkezten da sexuaren arabera bereizita**, datu estatistiko eta aldagai garrantzitsuak identifikatzen dira, egon daitezkeen genero-arrakalak azaltzen dira eta adierazleak sexuaren arabera bereizten dira. Hori guztia lan-arloi ezberdinetan egiten da, parte-hartzea, baliabideak eskura izatea, estereotipoen araberrakotratua, etab. barne hartuta, eta alderdi kuantitatiboetan eta kualitatiboetan berdintasun edo desberdintasun gradua zenbaterainokoa den adierazten da.

Azkenik, proiektu guztietan, hala iparraldean nola hegoaldean, entitate onuradunen estatutuak aurkezten dira agiri gehigarri gisa, eta horien osaera aztertzen da, batez ere **gizon eta emakumeek** kudeaketan duten **ardura maila**.

2.3 Laguntzaren koherentzia eta eraginkortasuna

Garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzaren sistema esparru bat da, eta maila guztietako (globala, eskualdekoa, estatukoa eta tokikoa) eragileak hartzen ditu bere baitan. Esparru horretan, **eragile horien guztien arteko koordinazioak egokia izan behar du eta haiek elkarren osagarri izan behar dute laguntza eraginkorra izan dadin**; hori gauzatzeko, lana behar bezala banatu behar da, eta dohaintza-emaile bakoitzaren kontzentrazio geografikoa eta sektoriala indartu.

² https://www.pamplona.es/sites/default/files/2018-12/plan%20igualdad%20cast%20_0.pdf

Iruñeko Udala bezalako toki-erakundeak testuinguru horretan txertatu behar dira halaberrez, eta besteen aldean dituzten abantailak baliatzen saiatu behar da, eta ez bikoizten beste eragile batzuen ahalegin eta jarduketak, hala tokian-tokian nola estatu- eta mundu-mailan. Identifikatutako erronka eta aukeren aurrean **lankidetza deszentralizatuak dituen abantaila konparatiboen** parte bezala, aipamen berezia merezi du **toki-erakundeek herritar globalak,** garapen jasangarriarekin konprometituak eta arduratsuak **sortzeko duten gaitasunak,** bai Iparraldean bai Hegoaldean. Zentzu horretan, **Garapen Jasangarriaren aldeko Hezkuntza** funtsezko ardatz integral bihurtu da hala entitate deszentralizatuen estrategietan nola GGKEen estrategietan. Berriz ere, toki-erakundeek zentzu horretan badituzte abantaila konparatibo argiak: herritarrengandik gertu egotea, hezkuntza-arloan eskarmentua izatea, espazio publikoak erabilgarri izatea eta oinarrizko plataformak zein mugimendu sozialak egotea.

Toki-esparruak ere abantailak eta ahalmenak eskaintzen ditu politiken koherentziazko ekimenak garatzeko, batez ere kontuan hartuta udal-entitateek, estatukoek ez bezala, burokrazia eta konplexutasun instituzional gutxiago dutela; horrek alor ezberdinetako arduradunen arteko koordinazioa, harremana eta lankidetza erraztu beharko lituzke. Hala ere, **tokian-tokitik, errealismoz eta ikuspegi praktikoz heldu behar zaio politiken koherentziari.** Orain arte planteatutako ekimen askok (baita Iruñean ere) ez dituzte espero ziren emaitza guztiak eman asmo handiegiko helburuak planteatzeagatik (normalean maila politiko-instituzionalean egindako aldaketa handiei dagozkienak) eta antolakuntza, erakunde eta teknika mailan dauden mugak ez ezagutzeagatik.

2.4 Estatuko, Nafarroako eta tokiko arau-esparrua eta esparru estrategikoa

Estatu mailan, **Nazioarteko Lankidetzari buruzko Legeak** (1988), **Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak** (2003) eta azken hori garatzen duen **Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorrak** (2006) toki-erakundeen garapenerako lankidetza aitortzen dute beren gizartearen elkartasunaren adierazpen gisa, eta lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita haien jarraipen-sistema ere, plan estrategiko batean argitzearen garrantzia ezartzen dute. Ondoren (2010), berariazko **Errege Dekretu** bat onetsi zen Nazioarteko Lankidetzako Dirulaguntzak eta horiek justifikatzeko modua erregulatzeko. Azkenik, **Toki Administrazioaren arrazionalizazioari eta jasangarritasunari buruzko legea** dugu (2013), toki-erakundeek nazioarteko lankidetzaren arloan eskumen berriak erabiltzeari buruzko zenbait baldintza eta kontrol planteatu zituen, bikoiztasuna saihesteko eta haien finantza-iraunkortasuna bermatzeko.

Ikuspegi estrategikoago batetik estatu mailan, kontuan hartu behar da **Espainiako Lankidetza Plan Zuzentzailea (2018-2021)**, oraindik berriro ez dena. Bertan zuzenbide eta lehentasun nagusiak biltzen dira, baita **Lankidetzako Estrategia Sektorialak** eta **Herrialdeetako Elkarte Esparruak** (MAP) ere.

Foru Komunitateari dagokionez, Nafarroaren lege-esparruan **Garapenaren aldeko Lankidetzari buruzko 5/2001 Foru Legea** dago (4/2010 Foru Legeak aldatu zuena). Lege horrek **elementu diferentzialak dituen lankidetza deszentralizatua** du ezaugarri, estatuen lankidetzaren alde biko eta alde anitzeko sistemekin alderatuta. Iruñeko udal-lankidetza honako hauek osatzen dituzten funtsezko arau- eta foru-esparruetan txertatu behar da: Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legea, Boluntario-lanari buruzko 2/1998 Foru Legea eta Nafarroako Lankidetza Kontseilua sortzen duen 100/2002 Foru Dekretua.

Nafarroako Foru Komunitatean, lankidetzaren esparru estrategikoa markatzen du **Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzaileak (2021-2024)**, zeina duela gutxi onetsi baitzen, Nafarroako lankidetzako eragile guztiekin izandako eztabaida- eta debate-epe baten ondoren.

Horren osagarri, kontuan hartu behar dira instituzio esanguratsuak erregulatzen dituzten askotariko **udal-araudiak, Iruñeko Lankidetzako Udal Kontseiluarena** kasu. Azkenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, kontuan hartu behar dira Iruñeko udal-lankidetzako tresna ezberdinen **Araudiak eta Oinarri Arautzaileak** (adib. GGKEendako dirulaguntza deialdiak proiektu, ekintza zuzen, larrialdi eta garapenerako hezkuntza/sentsibilizaziorako; Lankidetzari buruzko Argibide Bulegoa, etab.).

3. LANKIDETZAKO UDAL PROGRAMA

3.1 Programaren egitura eta helburuak:

Iruñeko Udalak **Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programa** (Udal Programa) dauka, **1996tik aurrera**, herrialde pobreenetako edo "Hegoaldeko herrialdeetako" komunitateei laguntze aldera.

Udal programa, gaur egun, **Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorraren** egituraren barruan dago.

Hiru profesionalek kudeatu izan dute Udal Programa hari **erregulartasunez atxikita**: batek administrazio-lanak egin ditu, eta beste biek zeregin teknikoak gauzatu dituzte garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren esparruan.

Udal Programak baditu, **bulego egonkorrak Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorraren egoitzan**, Iruñeko erdigunean (Zapatería k. 40); izan ere, kokapen hori hurbilekoa eta irisgarria da herritarrentzat eta hirian garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren esparruan diharduten erakundeentzat.

Udal Programaren zerbitzu-kartak honako **helburu** hauek definitzen ditu, goian aipatutako Dekretuaren ildotik:

- Garapenari** eta nazioarteko elkartasunari **laguntza emateko udal-politika** garatzea.
- Behar handiena duten herrialde eta komunitateen egoeraren berri** ematea, eta horiek egoera hori gaitzitzeko egiten dituzten ahaleginak jakinaraztea (Garapenaren aldeko Sentsibilizazioa eta Hezkuntza Iruñean).
- Laguntza ematea, Hegoaldeko herrialdeetan **giza garapenerako programak** egiteko.
- Hondamendi naturalek edo giza-jatorriko gatazkek eragindako **larrialdi humanitario**ko **egoeretatik** edo berehalako arrisku batetik **datozen ondorioak arintzeko** jarduketak sustatzea.
- Egiten diren jarduketak ebaluatzeko** lerro bat bultzatzea, Programaren berariazko atal baten gisara.
- Komunikazio eta partaidetzarako bideak sustatzea, Iruñeko Udalaren eta** garapenaren aldeko lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren esparruan etenik gabe lan egiten duten **GGKEen, taldeen eta erakundeen artean**.

3.2 Lan-ildoak eta tresnak

Udal Programarako definitutako helburu handiak urtero garatzen dira **5 jarduketa-ildo/modalitate nagusiren** bidez, eta horiek, aldi berean, hainbat tresna jasotzen dituzte:

A) Garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza

GGKEentzako dirulaguntza-deialdia, unean uneko sentsibilizazio-jarduerak egiteko	Deialdia banakako ebaluazio-araubidean egiten da, eta 2003tik aurrera dago abian. Horren helburua da GGKEen eskariari era desberdinduan eta arin erantzutea, haien ezaugarriengatik kudeaketa erraza, gastu-zenbateko txikiagoa eta ebazpen azkarra duten unean uneko jardueretarako laguntza eskaerei, hain zuzen. Deialdiaren xedea da ulergarriago egiten laguntzea Hegoaldeko herrialdeek bizi duten egoera, aurrez aurre izaten dituzten zailtasunak eta egoera hobetzeko egiten dituzten ahaleginak. Hartara, Iruñeko herritarrek sentsibilizatzea sustatzen da, eta herrietatik oraingoa baino mundu bidezkoago eta berdintasunezkoagoa lortzeko egin daitekeena nabarmentzen.
--	--

GGKEentzako dirulaguntza-deialdia, garapenaren aldeko sensibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak gauzatzeko.	Norgehiagokako araubidean egiten den deialdia da. 1997tik aurrera dago abian, baina hasieran garapenaren aldeko lankidetzako proiektuen deialdiaren barruan zegoen. 2001etik aurrera, ordea, deialdi bereizi gisa abiarazten da. Hegoaldeko herrialdeen egoerari , egoera horren kausei eta egoera horretan bizi diren komunitateak egoera hori gainditzeko egiten ari diren ahaleginei buruz sensibilizatzea eta prestakuntza ematea helburu duen deialdi bat da. Herritarren artean konpromiso solidarioko jarrera sustatu nahi du Ipar-Hego harreman bidezkoagoen eta berdintasunezkoagoen alde. Zenbaitetan, proiektuak GGKEen partzuergoek edo multzoek aurkezten dituzte, eta beste entitate batzuek zuzenean parte hartzen dute; horren eraginez, parte hartzen duten eragileen kopurua nabarmen handitzen da, hala deialdian oro har nola proiektuetako bakoitzean.
Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko hezkuntza-proiektuak egiteko dirulaguntza-deialdia GGKEentzako.	Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko hezkuntza-proiektuak egitera zuzendutako dirulaguntza-deialdi hau modu berritzailean sartu zen 2019an, I. Plan Zuzentzailearen esparruan , eta orain arte 4 deialdi egin izan dira. Herritartasun globalaren kontzeptuak erreferentzia egiten dio ildo eta ikuspegi sozial bati, zeinak herritartasun-eredu berria bultzatzen baitu, aktiboki engaiaturikoa , mundu bidezkoago eta jasangarriago bat lortzeko. Honako hauen alde egiten du: dibertsitatea errespetatzea eta baloratzea, ingurumenaren defentsa, kontsumo arduratsua eta giza-eskubideak errespetatzea. Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko hezkuntza-proiektuen deialdiak proiektu berri bat eta jarraipeneko bi finantzatzeko ditu urtero. Proiektu berriak hurrengo bi urtetarako jarraitasun-programazioa izan behar du.
Lankidetzahitzarmena NGGKEen Koordinakundearekin	Udal Programa 20 urte baino gehiagoan ari da etenik gabe elkarlanean, hitzarmen bidez , NGGKEK-Nafarroako GGKEen Nafarroako Koordinakundearekin (GGKEen elkarte askotarikoa eta boluntarioa, 1998an sortua, lankidetzaren eta garapenerako hezkuntzaren erreferente). Hitzarmen horren bidez garatutako jarduketak Udal Programaren jarduketa-ildoen osagarritzat jotzen dira : lehenik eta behin, gizartea eraldatzen laguntzea, herritar informatu, kritiko eta solidarioen garapenaren bidez; gainera, gai horietan lan egiten duten GGKE, elkarte eta erakundeen arteko parte-hartzea eta koordinazioa bultzatu nahi da. Horretarako, NGGKEK Iruñeko herritar, elkarte eta kolektiboei zuzendutako Informazio eta Baliabide Zentroa delakoa kudeatzen du, Iruñeko Udalak 2013ko otsailaz geroztik lagatako udal-etxebizitza batean (San Pedro auzoko multzoa 31)

B) Giza Garapenerako Laguntza

Garapenaren aldeko lankidetzako proiektuetarako dirulaguntza-deialdia GGKEentzako	Urtero egiten da deialdia, norgehiagokako araubidean , eta 1996tik aurrera dago abian. Hegoaldeko komunitateetan tokiko giza garapena sustatzen duten proiektuak egiten laguntzeko da, honako arlo hauetan: hezkuntza, prestakuntza, osasuna, etxebizitza, giza eskubideen defentsa, garapen ekonomikoa eta azpiegiturak. Hartara, onuragarriak izan behar dute hirietako nahiz landako komunitateentzat, eta berekin ekarri behar dute komunitate edo udalerrien eta beren ordezkarien parte-hartze aktiboa, proiektu horiek proposatu, kudeatu eta gauzatzeko. Deialdi hori Udal Programaren elementu nagusia izan da , bai Udaleko talde teknikoak izandako dedikazioari (aurreko deialdietako proiektuak jarraitzea eta aurtengo deialdiak martxan jartzea eta ebaztea) bai bideratu zaizkion baliabide ekonomikoei dagokienez.
Dirulaguntzen deialdia GGKEentzko Hegoaldeko Herrialdeetako Toki-erakundeekin Lankidetzako proiektuak gauzatzeko	Deialdi hau ere urtero egiten da norgehiagokako araubidean , eta martxan da 2006tik aurrera , hainbat formatutan. Horren bidez, Hegoaldeko toki-erakundeek giza garapen jasangarriaren alde egin nahi da, eta horretarako gauzatu nahi diren proiektuek herrien autogestioa eta autosufizientzia sustatu behar dituzte, baita udaletan partaidetza aktiboa izatea ere. Lan-ildo horren helburua Udal bakoitzaren garapen-planetan jasota dauden proiektuak zenbait urtetan batera finantzatzea da, azken hartzaileak Hegoaldeko toki-erakundeak izanik (udalak eta mankomunitateak eta tokiko beste

gobernu mota dezentralizatu batzuk). Deialdi honetara aurkeztutako proiektuek diseinatuta egon behar dute epe ertain eta luzerako eraginak lortzeko, eta beraz, **jarraitasun-programazioa** izan behar dute hurrengo **hiru urteetan zehar**, urtebeteko fase independenteetan banagarriak. Bestalde, Udal Programaren bidez babestu egiten dira, udal-funtsak baliatuz, hiru urtean zehar, deialdi horretan hautatutako proiektuak.

Ekarpenak
Lankidetzarako
Nafarroako Toki
Funtsari

Iruñeko Udala **lehen ediziotik, 1998az geroztik, atxiki izan zaio Funts horri**. Horren bitartez, Nafarroako toki-erakunde guztiei ahaleginak batzeko aukera eman nahi zaie, garapenaren aldeko lankidetzaren esparruan egiten dituzten ekarpenak handiagoak eta eraginkorrak izan daitezen, batik bat toki-administrazioen eskumenetan sartu ohi diren sektoreei begira: edateko uraren hornikuntza, saneamendua, hezkuntza, lehen mailako osasun-arreta, eta herrien edo etxebizitzaren oinarriko garapen ekonomikoa. Ildo horretan, **gure Komunitateko gainerako toki-erakundeekin sarean lan egiteko ahalegina** dakar, eta laguntza ekonomikoaz gain, beste jarduera batzuk egiten dira koordinatzeko, prestakuntza emateko eta tokian tokiko giza garapena bultzatzeko.

C) Giza Larrialdietarako Laguntza

Dirulaguntza-deialdi
publikoa GGKEek
larrialdi
humanitarioetan
jarduketak egiteko

Urteroko deialdia da, **banakako ebaluazio-araubidekoa**, eta **1999. urteaz geroztik** dago martxan. Hasiera batean GGKEen unean uneko eskaerei erantzuteko tresna/funtsa zen, eta ondoren (2003an) berariazko dirulaguntza-deialdi bihurtu zen. Deialdi honen helburua da jarduketa humanitarioak babestea, hondamendi naturalen edo gizakiok sortutako gatazken ondorioz **larrialdi-egoeran edo horren arrisku larri eta berehalakoan** dauden herriei laguntzeko, edo horiek birgaitzeko. Aintzat harturik ere larrialdietan edo premia humanitario handien aurrean toki-erakunde batek erantzuteko gaitasun mugatua duela, Iruñeko Udalak garrantzitsu deritzo alor honetan sortzen diren ekimenetan laguntzeari.

D) Udal Programaren berezko jarduketak

Lan-ildo honen barruan sartzen dira **Udal Programak berak** –ez GGKEen edo beste entitate batzuen bidez– **zuzenean egindako jarduerak**, non argi eta garbi agertzen baitira dituen **abantaila konparatiboak eta balio erantsia**. Udal Programaren berezko jarduera nagusiak honako hauek dira:

- Iruñeko **Lankidetzako Udal Kontseilua** dinamizatzea eta koordinatzea
- Linea irekia **herritarrei, GGKEei** eta beste entitate batzuei **argibideak** emateko
- Harreman **instituzionalak** Hegoaldeko entitate eta pertsonekin, GGKEek eta beste entitate batzuek antolatutako ekitaldi eta jardueretan parte hartzea, lanerako lokalak eta espazioak lagatzea
- Udal Programa osoa teknikoki koordinatzea, barne hartuta urteko dirulaguntza-deialdiak kudeatzea, garapenaren aldeko lankidetzarekin eta nazioarteko elkartasunarekin lotura duten beste entitate batzuekin koordinatzea, NGGKEi babesa ematea (egoitza bertan izateko udal-etxebizitza bat lagatzea barne), Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluan parte hartzea eta Udal barneko koordinazioa Iruñeko Udaleko beste alor batzuekin.


E) Udal Programaren beste jarduketa batzuk

Amaitzeko, azken lan-ildo honetan, Udal Programak egiten dituen **askotariko jarduera heterogeneoak** sartzen dira, honako hauekin zerikusia dutenak: a) prestakuntza, lantegi eta batzarretara joatea; b) dokumentazioa; c) elkarlana beste entitate batzuekin; d) funts bibliografikoa; e) FEMPen parte hartzea; f) Udal Programa eta haren lanak hedatzea (argitalpen, komunikabide, memoria eta abarren bidez); g) Programaren plangintza estrategikoa eta ebaluazioa.


4. I. PLAN ZUZENTZAILEAREN EBALUAZIOAREN IKASKUNTZAK

4.1 Udal Programari buruzko datuak I. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean

Udal Programaren **aurrekontuaren banaketak** (2018-2021) erakusten du bere baliabide gehienak (% 72) GGKEek **Hegoaldean** egindako **garapenerako** esku-hartzeak laguntzeko erabili direla, bere helburuekin bat etorritz. % 12 **Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko** ekintzak laguntzera bideratu da, GGKEen bidez, eta % 7, **Laguntza Humanitarioko** eta **Larrialdietako** esku-hartzeak laguntzera. Udal Programaren **ekintza propioetarako aurrekontua** % 1era mugatzen da, eta **kudeaketa-gastuak** (langileriakoak barne), aldiz, aurrekontu osoaren % 8 dira.




2. irudia: GNLParen aurrekontuaren banaketa (2018-2021)




3. irudia: Aurrekontuaren % GNLParendako eta gauzatutakoa (2018-2021)

Udal Programaren urteko aurrekontuak **urtero gaintitu du** Iruñeko Udalaren hasierako aurrekontu osoaren **% 0,75**, eta **2021ean % 0,8ra heldu** zen, urte hartan izandako gorakada handi baten ondoren. Horrek Udalak lankidetzako politikarekin duen konpromisoa eta egiten duen ahalegina islatzen ditu, eta I. Plan Zuzentzailean markatutako helburuak betetzen ditu. Udal Programak urtero **gauzatutako aurrekontua** hasieran planifikatutakoaren % 100ean mantendu da, eta 2018an eta 2019an aurreikusitakoa baino zertxobait gehiago gastatu da.





4. irudia: GNLUParen deialdietara aurkeztutako eta onetsitako proiektuak (2018-2021)


Nazioarteko lankidetzako urteko deialdian 2019an aurkeztutako proposamenen kopuruan beherakada arin bat izan ondoren, proposamenek gora egin dute berriz ere, eta 2021ean 45era heldu dira. Onetsitako proposamenen ehunekoak behera egin du, 2018ko % 80tik 2021eko % 73ra. Aitzitik, proposatutako dirulaguntzen batez besteko zenbatekoak gora egin du, 2018ko 30.000 €-tik 2021eko 35.000 €-ra. **Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko deialdiari** dagokionez, aurkeztutako proposamenen kopuruan beheranzko joera ikus daiteke, 2018ko 16etatik 2021eko 13etara. Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko proposamen horien onarpen mailaren ehunekoa % 90 ingurukoa izaten da urtero, eta proposamen bakoitzeko dirulaguntza 6.000 €-koa izan ohi da batez beste.



5. irudia: GNLUPak Lankidetzako eta Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko Proiektuetarako batez beste onetsitako dirulaguntza (2018-2021)




6. irudia: GNLUParen funtsak eta lagundutako GGKEak herrialdeka banatuta (2018-2021)



7. irudia: GNLUParen funtsak eskualdeka (2018-2021)

Nazioarteko lankidetzako deialdietan diruz lagundutako **proiektuen banaketa geografikoari** dagokionez, askotariko herrialdeak daudela ikusten da (34), GNLUPak jarraitzen duen ikuspegi malguarekin eta GGKEen eskaeretan oinarritutakoarekin bat. Funts bolumen gehien eta babestutako GGKE gehien dituzten herrialdeak Erdialdeko Amerikakoak eta Hego Amerikakoak dira oraindik ere, baina, oro har, **Afrika da deialditik funts gehien jasotzen duena**, guztizkoaren ia % 50, eta laguntza jasotzen duten 34 herrialdeetatik 20 (guztizkoaren % 59) hartzen baititu. Asiak (ia Indiara eta Pakistanera mugatuta) eta Ekialde Ertainak (Palestinako lurralde okupatuei mugatuta) pisu txikia dute funtsen banaketa geografikoan (% 7 guztira). Oro har, laguntza jasotzen duten herrialde gehienak **errenta baxukoak edo ertain-baxukoak** dira.

Azkenik, Udal Programak nazioarteko lankidetzako deialdietan **nagusiki babesten dituen sektoreei** dagokienez, sektore horiek **gobernuari eta gizarte zibilari** laguntza ematea dute ardatz, oinarriko gizarte-premiak estaltzearekin batera (arreta berezia jarritz **Osasunean, Ur eta saneamenduan eta Hezkuntzan**). Sektore horiek, guztiek batera, dirulaguntzetako funtsen guztizko bolumenaren % 75 baino gehiago osatzen dute.




8. irudia: GNLParen funtsak sektoreka banatuta (2018-2021)

4.2 I. Plan Zuzentzailearen helburuen/jomugen betetze-maila

I. Plan Zuzentzailearen diseinua, egitura eta helburuen, jomugen eta adierazleen definizioa, oro har, **garrantzitsuak, koherenteak, egokiak, argiak eta operatiboak** izan dira, harekin zuzeneko edo zeharkako harremana izan duten talde gehienek iritzi (inkestakiko GGKEen % 60k oso altu baloratzen du, eta gardentasuna eta ikuspegi parte-hartzailea nabarmentzen dira). Horietako batzuek argitasun-, zehaztasun- eta praktikotasun-eredutzat ere hartu dute, eta jarraitzeko moduko adibide izan daitekeela baloratu dute. Bereziki, Udal Programaren talde teknikoak berak **kudeaketa-tresna gisa duen argitasuna eta erabilgarritasuna** (benetako "agindu-koadroa", barne erabileran) nabarmendu ditu; NGGKEek eta GGKEek, aldiz, haren **aurreikusgarritasuna eta segurtasuna balioetsi dituzte plangintzarako, komunikaziorako** eta udal-aurrekontuak lankidetzat-tresnei esleitzeko **konpromisorako** tresna gisa.

Oro har, I. Plan Zuzentzaileako aurreikusitako **helburuen eta jomugen betetze-maila orokorra** ona izan da; izan ere, horien **% 87 (31tik 27)** erabat (% 42) edo partzialki (% 45) **lortu dira**, eta hori bereziki goraipagarria eta positiboa da **COVID-19aren ondorioz** I. Plan Zuzentzailearen azken bi urteetan egon den **muga handien testuinguruan**. Hasieran aurreikusitako jomugen % 20 soilik (31tik 6) ezin izan dira bete, eta horietako gehienak garrantzi ertaineko alderdiei dagozkie, ez I. Plan Zuzentzailearen funtsezko helburuei edo helburu nagusiei. Datu horiek bat datoz **GGKEen** pertzepzioarekin eta balorazioarekin; izan ere, horien **% 70ek balorazio positiboa egiten dute** I. Plan Zuzentzailearen jomugak eta helburuak betetzeari buruz, dela maila altuan (% 35), dela ertainean (% 35).




9. irudia: I. Plan Zuzentzailean definitutako helburu estrategiko nagusien betetze-maila (2018-2021)

Bereziki, I. Plan Zuzentzailearen indargune nagusietako bat da **Udal Programari hasiera batean esleitutako aurrekontu-konpromisoak bete izana**; izan ere, Iruñeko Udalaren aurrekontu nagusiaren % 0,7tik gora mantendu da, eta Udala Espainiako **lankidetzak deszentralizaturako benetako lider eta erreferente** bihurtu da, baita COVIDak eragindako testuinguru korapilatsu batean ere, non beste entitate batzuek haien nazioarteko lankidetzarako aurrekontuak murriztu baitituzte.

Halaber, I. Plan Zuzentzailea indarrean egon bitartean, Udal Programak **malgutasun, gertutasun eta irisgarritasun handia** erakutsi ditu harremanak dituen talde guztiekin (batez ere GGKEekin, baita entitate "txikienekin" ere, funtsezko talde gisa). Horri esker, alde batetik, **COVIDaren inpaktu negatiboak minimizatu** ahal izan dira (adibidez, martxan zeuden eta testuinguru horretan zailtasunak zituzten proiektuen gauzatze- eta jarraipen-baldintzak malgutu eta egokituta). Bestalde, kontsultatutako GGKE gehienek (bitik batek oso ontzat jotzen du) **oso positiboki baloratu dute GNLUParen jarduna**, bai funtsean bai forman, eta **bi aldean arteko konfiantza- eta lankidetzak** giro handia sortu da.

I. Plan Zuzentzailean aurreikusitako **helburu nagusiei** dagokionez, **erdiespena ez da erabat homogeneoa izan**: 2. helburuko (Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa sustatzea) eta 5.eko (Herritarren artean Udal Programari buruzko ezagutza eta gardentasuna areagotzea) **jomugak ia erabat bete dira**; 1. helburuko (Lankidetzako ekintzak indartzea Hegoaldean), 3.eko (Udal Programaren kalitatea eta ekintzak hobetzea) eta 4.eko (Koordinazioa eta osagarritasuna areagotzea) jomugen **betetze-maila onargarria** da, aurreko taldearena baino eskasagoa izan arren, eta, azkenik, 6. helburuko (GLUKa suspertzea) jomugen **betetze-maila mugatuagoa** izan da.



10. irudia: I. Plan Zuzentzailean (2018 – 2021) aurreikusitako jomugen betetze-maila

4.3 Ebaluaziotik ikasitako gomendioak eta lezioak

❖ Komenigarria da **hainbat urtetarako** programen alde egiten jarraitzea, bai Hegoaldeko Toki Entitateekin bai Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzan Iruñean egiten direnekin; tresna horiek aitzindariak edo beste batzuentzako eredu baitira, eta udal-lankidetzaren inpakto, jarraitutasun eta balio erantsi handiagoa planteatzea ahalbidetzen baitute.

❖ **Hegoaldeko lankidetzaproiektuen** tresna da GNLUParen benetako bihotza, bai funtsen bolumenagatik, bai GGKEentzat duen ikusgarritasunagatik eta garrantziagatik. Izaera malgua mantendu arren, gomendagarria da errenta baxuena duten herrialdeetako proposamenak (batez ere Afrikan) lehenesteko prozesuarekin jarraitzea, bai eta benetako eskubideen ikuspegia oinarri duten proiektuak sustatzea ere.

❖ Garrantzitsua da Udal Programak **Hezkuntza eta Sentsibilizazioa** indartzen jarraitzea, ikuspegi globala sustatuko duten jarrera- eta portaera-aldaketak lortzeko estrategia eta funtsezko tresna gisa. I. Plan Zuzentzaileak hezkuntza ez formala sustatzearen alde egindako apustuak zuzena dirudi; hala ere, interesgarria litzateke, modu pilotuan bada ere, hezkuntza formalaren arloan ekimen batzuk probatzea.

❖ II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean, ez da ahaztu behar **GNLUPko talde teknikoaren beraren gaitasunak** indartzen jarraitzea, horrek ekar dezakeen balio erantsi guztia aprobetxatu ahal izateko, ekintza propioak bultzatzeko, Iruñeko GGKEen sektorearen eta beste gizarte-eragile batzuen arteko loturak dinamizatuz eta koordinatuz, etab.

❖ Hurrengo II: Plan Zuzentzaileak **GGKEen sektorearen alde** apustu egiten jarraitu behar du, GNLUPa lantzeko **talde nagusi** eta lehentasunezko gisa. Hala ere, Iruñeko migratzaile-taldean (Hegoaldeko herrialdeetatik etorritakoak) potentzialari etekina ateratzeko saiakera egin beharko litzateke, baita Iruñeko beste herri-elkarte/sare batzuei ere (auzoetako taldeak, gazte taldeak, kontsumitzaileenak, adinekoenak, kirol-, kultura- eta arte-taldeak, etab.), hiriko gizarte-ehuna lehen eskutik ezagutzen dutelako eta harekin harremanetan daudelako.

❖ Interesgarria da etorkizunean **boluntarioritza bultzatzea** lankidetzaren sektorean, bai GGKEek Hegoaldean garatutako proiektuetan parte hartuz, bai Iruñeko garapenaren aldeko hezkuntza eta sentsibilizazioko ekintzetan.

- ❖ *II Plan Zuzentzaileari begira, beharrezkoa da berrikustea **Laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa** delako tresna, berehalako beharrei, premiazkoei, bat-batean gertatutakoei eta aurreikusi gabekoei erantzuteko duen helburua indartzeko xedez.*
- ❖ *I Plan Zuzentzailean atzemandako zailtasunak gorabehera, II Plan Zuzentzailean beharrezkoa da apustu egiten jarraitzea **Udal Programaren eta Iruñeko Udaleko beste Alor batzuen arteko lankidetzaren** ekimenen alde, udal-politiken koherentzia aurrera egiteko. Ezinbestekoa da ekimen horien kudeaketarako eta jarraipenerako mekanismo/foro egokiak eta operatiboak sortzea.*
- ❖ ***GJH eta 2030 Agendaren** esparrua tresna interesgarria da udal-politiketan garapenaren aldeko lankidetzaren zenbait alderdi zeharkako bihurtzeko eta politiken koherentzia indartu eta nazioarteko helburuekin lerrokatzea sustatzeko.*
- ❖ *Berriz ere heldu behar zaie GNLUPak babestutako ekintzen **kanpo-ebaluazioei**, batez ere hainbat urterako programen kasuan (bai Hegoaldeko Toki Entitateekin egiten direnei, bai Iruñeko Garapenaren eta Herriartasun Globalaren aldeko Hezkuntzakoei).*
- ❖ ***NGGKEKri emandako babes erregularra eta jarraitua** mantentzea, Udal Programak lortu nahi dituen hainbat helburutarako funtsezko bazkide estrategiko diren heinean. Kontuan hartu beharko lirateke bai 2019an egindako hitzarmenaren ebaluaziotik bai I. Plan Zuzentzailearen ebaluazio honetatik ikasitako gomendioak eta lezioak. Ildo horretan, Udal Programak kontuan hartu beharko luke NGGKEKekin egindako hitzarmenara bideratutako urteko funtsak handitzea.*
- ❖ *Klima-aldaketaren kontrako premiazko borrokaren nazioarteko esparru berria kontuan hartuta, beharrezkoa da **ingurumen-jasangarritasuna** sustatzea zeharkako ardatz estrategiko gisa, eta arazo horri heltzean Hegoaldeko begirada sustatzea Udal Programaren elementu bereizle gisa.*
- ❖ *I Plan Zuzentzaileak lehendik ere bazuen **genero-/berdintasun-osagai** garrantzitsua bere baitan; ikuspegi horretan sakontzen jarraitu behar da II:Plan Zuzentzailean, horiei buruzko helburuak, jomugak eta adierazleak indartuz.*
- ❖ *Beharrezkoa da Nafarroan lankidetzan jarduten duten **beste entitate publiko batzuekiko osagarritasuna eta koordinazioa** indartzea, bereziki Nafarroako Gobernuako Lankidetzaren Zerbitzuarekin eta Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtzarekin. Elkarlanerako ekimen zehatz gutxi batzuk identifikatzea izanen da gakoa, jomuga errealista eta bideragarriak ezarri, eta elkarren artean mekanismoak eta tresnak garatzea horiek gauzatu eta ebaluatzeko.*
- ❖ *I. Plan Zuzentzailea indarrean egon zen bitartean atzemandako ahuleziak gorabehera, **Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluak** (GLUK) oraindik ere funtsezko organoa izaten jarraitzen du zilegitasuna eta babes politiko-instituzionala emateko Udal Programaren erabaki eta ekimen nagusiei. Horregatik, organo horren aldeko apustua egiten jarraitu beharko da, ahalik eta operatiboena, dinamikoena eta parte-hartzaileena izan dadin saiatuz.*
- ❖ *Horri dagokionez antzemandako gabezia dela eta, **Udal Programaren ikusgarritasuna eta ezagutza** nahiz herritarren artean egiten duen lana areagotu beharko dira, alde batetik, horretarako dauden onlineko tresnak sustatuz (adib. webgunea berriz diseinatzea, sare sozialetako presentzia indartzea), eta, bestetik, Udalaren beste alor batzuetan jada badauden askotariko hedapen- eta komunikazio-prozesuak eta -kanalak ahalik eta gehien aprobetxatuz.*

5. II. PLAN ZUZENTZAILEAREN PRINTZPIOAK ETA BEREZKO EZAUGARRIAK

Udal-programak II. Plan Zuzentzaile honen aldian sustatu nahi duen **lankidetzaren ereduaren ikuspegia, printzipioak eta berezko ezaugarriak ez dira aldatzen, logikoa denez, I. Plan Zuzentzailean zehaztutakoaren aldean**. Atal honetan horiek gogoratuko ditugu, alderdi txiki batzuk eguneratuz eta aurreko ataletan dagoeneko aztertu dugun barne- eta kanpo-testuinguru berrira egokituz

5.1 Gure misioa

I. Plan Zuzentzailean aipatzen zen bezala, II. Plan honetan (2022-2025) ere Udal Programaren helburua da **Iruñeko herritarren elkartasuna bultzatzea, laguntzea eta garatzea**, udalerrian aktibo dauden GGKEek ordezkatzeko dutena bereziki, **behar handiena duten Hegoaldeko herri eta komunitateekin tokiko lankidetzaren ekintzak babestuz**.

Gainera, Iruñeko **herritarrengandik hurbil gaudenez, eta haiekin konfiantza zein zuzeneko harremana dugunez**, elkartasun eta lankidetzaren horiek **gure gizartearen erantzukizuna** eta ez laguntza asistentzial hutsa direla ulertu dadin lagundu nahi dugu, aintzat hartuta mundua gero eta globalizatuago dagoela eta elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa dela.

5.2 Gure ikuspegia

Hegoaldean babesa ematen diegun lankidetzako ekintzak behar bezain kalitatezkoak eta sakonak izatea nahi genuke, **eskala txikian bada ere, talderik ahulenetan aldaketa nabariak lortzeko**, eta gure ekintzak lagungarriak izatea lan egiten dugun **komunitateak eta tokian tokiko agintariak indartzeko**, elkarrekin lorpenak garatzen jarrai dezaten, baita gure babesa amaitzen denean ere.

Bestalde, nahi genuke gure **herritarrek informazioa izatea eta jakitea** zein diren egun eragiten dituzten arazo globalak, eta modu aktiboan inplikatzeko horiek konpontzeko, **hirian bertan keinu txikiak eginez**, jakinik mundua aldatzeko behetik hasi behar dugula, zehatzenetik.

Bereziki, garapenerako lankidetzari eta **Iruñean hegoaldeko begiradari berriz balioa ematen** lagundu nahi genuke, **aldaketa eta erronka globalen** testuinguruan tresna **eraldatzaile** gisa, eta, horretarako, **tokiko esparruaren** abantaila konparatiboetan sakontzea.

5.3 Gure oinarrizko printzipioak

MALGUTASUNA, JARRAITUTASUNA ETA IKUSPEGI ERREALISTA

Badakigu gure mugak zein diren, eta badakigu gure baliabideekin ezin ditugula oso asmo handiko erronkak planteatu edo tresna eta modalitate ugari garatu; guk ez, baina jarduteko eremu handiagoa duten beste dohaintza-emaitza batzuek aukera hori badute, ordea. Hori dela eta, nahiago dugu Iruñeko GGKEen testuinguruarekin eta profilarekin bat datozen **ekintza zehatz, praktikoa eta errealista** gauzatu eta babestea; izan ere, GGKE horiek ertainak edo txikiak dira, eta **tresna erraz eta malguak** behar dituzte beren jarduna eta kudeaketak errazteko.

Bestalde, horrek esan nahi du **egonkortasun-maila handia** mantendu nahi dugula lankidetzako gure politikako lehentasunei, helburuei edo tresnei begira ere; ez alferrik, lankidetzako politika

pixkana hobetzeko prozesu baten moduan ulertzen dugu, **sorpresarik eta bat-bateko aldaketarik gabe**, poliki-poliki lortzen denaren gainean eraikitzen joateko, lan egiten dugun GGKEen testuinguruarekin eta beharrekin bat.

Hala, gure ikuspegia malgua eta errealista izatea nahi dugu, gure GGKEen beharrekin eta interesekin bat datorrena, haiek sustatzen ez dituzten eta protagonista ez diren ekintzak era artifizialean behartu gabe. Horren ondorio da gure **lankidetzarako lehen tasun geografiko oso zorrotz eta mugatuak ez zehazteko** erabakia, edota **oinarrizko beharrei erantzuteko babesaren alde egitea, modu zabalean**.

Nahiz eta malguak izan nahi dugun, jarraituko dugu **babesa behar handiena duten** eta Giza Garapeneko (GGI) zein eskubide-urraketen indize kezkarrienak dituzten **eremu geografikoetara bideratzen**, orain arte bezala. Eremuez ari gara, ez herrialdeez halabeharrez, jakin badakigulako GGI ertaina edo ertain-altua duten herrialdeetan ere pobrezia-poltsak daudela. Hala ere, **azken kasu horretan, gure babesa gizarte zibileko erakundeak indartzera bideratuko dugu batik bat**, tokian tokiko gobernuekin batera lan egin dezaten aberastasuna birbanatzeko eta beharrik handiena duten taldeengana hel dadin lortzeko.

OSAGARRITASUNA

Aurrez esandakoarekin lotuta, eta gure mugak direla eta, hain zuzen, are garrantzitsuagoa da **gure ahaleginak beste eragile eta dohaintza-emaile batzuen ahaleginekin koordinatzea**, helburu bateratuak erdietsi nahi baditugu. Gure iritziz, lankidetzaren arloan, dohaintza-emaile handiek eta txikiek, guztiek dute tokia; denek dute **zeregin garrantzitsua eta elkarren osagarri dira**.

Zehatz-mehatz, Iruñeko GGKE askok **ezin izaten dituzte dohaintza-emaile handien funtsak eskuratu** beren tamaina eta gaitasuna direla eta, baina Udal Programaren babesa ezinbestekoa zaie Iruñeko ehun soziala indartzeko edo Hegoaldean tokian tokiko lankidetzako ekintzak modu jarraituan babesteko, batez ere gu baino irismen handiagoko dohaintza-emaileen esku-hartze handietatik kanpo gelditzen diren eremuetan.

Bereziki, gure komunitateak probintzia bakarra duela eta hiriburua Iruña dela aintzat hartuta, funtsezko estrategiak dira **Udal Programa, Nafarroako Gobernuko Lankidetzako Zerbitzua** eta Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtseko koordinatzea eta **elkarren osagarri izatea**.

HURBILTASUNA ETA GARDENTASUNA

Beste dohaintza-emaile batzuen aldean, txiki samarrak gara, baina horrek baditu abantailak ere. Zehazki, gurekin lan egiten duten GGKEen ekintzak, beharrak eta testuingurua **zuzenean ezagutzeko** aukera dugu, baita Iruñean diharduten talde eta mugimendu sozialena ere. Hartara, **tratu eta komunikazio hurbil eta errazak** ditugu haiekin guztiekin, beste kasu askotan gailentzen diren formalismo eta protokolo inpersonalen gainetik.

Bestalde, elkarrengandik hurbil egoteak **haiek eskaerak egitea eta gu gardenagoak izatea** dakar, eta areagotu egiten dira GGKE eta udalerriko elkartasun-mugimenduentzako informazio- eta komunikazio-ekimenak (oinarriak aurkezteko bilerak, proiektuak koordinatzeko eta jarraipena egiteko bilerak, urteko memoria prestatu eta bidaltzea, etab.).

GARAPENERAKO HEZKUNTZA, FUNTSEZKO ALDERDI

Eskuarki, gure aurrekontuaren zatirik handiena Hegoaldeko lankidetzako ekintzetara bideratzen da; hortaz, hori da gure jardunaren muin nagusia. Hala eta guztiz ere, badakigu **Garapenerako**

Hezkuntza eta Sentsibilizazioa dela gurea bezalako **toki-erakunde batek besteen aldean duen abantaila handienetako bat**. Eta hori hala da, funtsean herritarrengandik hurbil gaudelako eta horretarako baliabideak erabil ditzakegulako. Gainera, **ez da aurrekontu handia behar** Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa kalitatezkoa izateko (zenbaitetan, hala izaten baita Hegoaldeko lankidetzako proiektuetan), eta bideragarriagoa da, gure kasuan bezala, baliabide mugatuak dituzten erakundeentzat. Azkenik, **dohaintza-emaile askok Hegoaldeko proiektu handiak finantzatzean ipintzen dute arreta**, baina ez dute lan egiten Iparraldeko pentsamoldeak, jarrerak eta jardun arduratsuak alda daitezen; horrenbestez, gurearen tankerako toki-erakunde batean lan hori egitea oso osagarri aproposa da.

HERRIEN ALDEKO APUSTUA

Hegoaldeko udalerrriak indartzeko espazioan (governantza, deszentralizazio-prozesuetan laguntzea, udalerrriak indartzea), bestalde, bistan da Iruñeko Udalaren tankerako toki-erakundeek **abantaila ugari dituztela, nork bere esperientziatik abiatuta eta "parekoen" ikuspegiarekin lan egiten delako** bertako toki-erakundeekin. Horrez gain, beste erakunde batzuek ez diote espazio horri hainbesteko dedikazioz heldu, eta berriz ere, gu osagarri izatea oso balio garrantzitsua da.

Hori jakinik, azken urteotan tokian tokiko lanaren aldeko apustua **funtsezko lan-ildo bihurtu da Udal Programarako** (Hegoaldeko toki-erakundeekin proiektuak egiteko deialdiak), gure lankidetzaren ezaugarri bereizgarrietako bat izateraino.

5.4 Udal Programarako funtsezko eragileak

IRUÑEKO GGKEak

Haiek dira, ezbairik gabe, Iruñeko **garapenerako lankidetzak eta hezkuntzako eragile nagusia**, dela haien bitartez bideratzen den diruagatik, dela haien zeregin, balio erantsi eta abantailengatik, batik bat Hegoaldeko kideekin eta toki-erakundeekin harremanetan egoteari dagokionez. Gainera, oso kontuan izan behar dugu ezinbestekoak direla Garapenerako Hezkuntzaren esparruan, herritar konprometituak eta arduratsuak sortzen dituztela, eragin politikoa duten lanak egiten dituztela eta ehun sozial indartsu eta kohesionatua sortzen laguntzen dutela.

Horregatik guztiagatik, I. Plan Zuzentzailean gertatu bezala, **GGKEek gure bidelagunik hurbilena izaten jarraituko dute** II. Plan Zuzentzaile honek iraunen duen aldian; hartara, udalerrrian aktiboak diren eta bertako zein Hegoaldeko beste erakunde batzuekin loturak dituzten Iruñeko gizarte-ehuneko toki-erakundeei babesa ematen jarraituko dugu dirulaguntzen bitartez. Bestalde, erakunde gisa sendotzen lagundu nahi diegu, ebaluazioak eginez, laguntza tekniko emanaz, trebakuntza eskainiz eta haiekin koordinatuz.

NGGKEK

NGGKEK funtsezko beste eragileetako bat da, eta zeregin bikoitza du: batetik, **GGKEak ordezkatzan dituen plataforma** nagusia da gure udalerrian; eta bestetik, oso eragile garrantzitsua da **Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioaren esparruan eta herritarrei lankidetzako gaiei buruzko informazioa emateko** orduan. Ildo horretan, Udal Programaren eta NGGKEKren arteko lotura indartu egin nahi dugu II. Plan Zuzentzaile honek irauten duen aldian, eta babesa ematen jarraituko dugu haren Argibide Bulegoa mantentzeko, baita GGKEen sektorea dinamizatzeko eta laguntzeko duen funtsezko papera indartzeko eta Iruñean Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioaren inguruan beste ekimen batzuk gauzatzeko.

GARAPENAREN ALDEKO LANKIDETZAKO UDAL KONTSEILUA (GLUK)

Esan bezala, **foro honek sekulako indarra** izan dezake GGKEen, Udal Programako talde teknikoaren eta talde politikoen ahotsak bateratzeko, hartara, **gogoeta, gardentasuna, eztabaida eta politiken koherentzia** sustatuz. I. Plan Zuzentzailearen indarraldian zenbait ahulezia eta

mugan antzeman baziren ere haren funtzionamenduan, sarritan informazio-lanetara mugatua baitzegoen, garrantzitsua da nabarmentzea II. Plan Zuzentzailean ere funtsezko garrantzia duela eztabaida politikorako gune gisa, eta Udal Programaren ekimen eta proposamen nagusiak berresteko.

HEGOALDEKO KIDEAK ETA TOKI-ERAKUNDEAK

Hegoaldeko kideak eta toki-erakundeak laguntza-hartzaile hutsak baino askoz gehiago dira, haien **komunitateetako benetako garapenaren motor** baitira. Hala, lagungarriak dira bertako gizarte-ehuna indartzeko, baita gobernantzako eta eskubideak exijitzeko elementuak eraikitze ere. Gure abantaila konparatiboei etekina ateratze aldera, II. Plan Zuzentzailean zehar **toki-erakundeekiko** elkarlanari eutsiko zaio, eskualde- edo estatu-mailako beste batzuen aurrean. **Oro har**, Programak babesten dituen **GGKEen bidez jarriko gara haiekin harremanetan**, GGKE horiekin baitute zuzeneko harremana. Hala ere, zuzeneko harremana ezartzen ere saiatuko gara, bisita instituzionalak, tokiko gobernatza-esperientzien trukea eta abar baliatuz.

IRUÑEKO GIZARTE-EHUNA

Iruñeko gizarte-mugimendu eta -entitateen (bidezko merkataritzakoak, ekonomia solidarioak, emakumeenak, etorkinenak, kontsumitzaileenak, ekologikoak, etab.) ehuna aktiboa eta askotarikoa da. Eragile horiek guztiak funtsezkoak dira Iruñean II. Plan Zuzentzaile honen funtsezko alderdia den **Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa** lantzeko.

Era berean, **gizarte-ehunari babesa ematea**, bai Iruñean, bai Hegoaldean, Udal Programaren zereginaren funtsezko alderdi bat da. Lankidetzak kolektibo eta mugimendu sozial "*horiekin*" lantzea da erronka, ez "*haientzat*" lan egitea soilik. Eskuarki, eragile sozial askok bat egiten dutenez kolektibo horien barruan, bide ezin hobeak dira herritarrekin konektatzeko eta **eragin biderkatzaile handia** lortzeko.

NAFARROAKO GOBERNUKO LANKIDETZA ZERBITZUA

Nafarroako Gobernuko Lankidetzak Zerbitzuak eta Udal Programak lurralde-eremu berean eta, batez ere, GGKE berberekin lan egiten dute. Arrazoi hori tarteko, ezinbestekoa da Zerbitzu horrekin **koordinazio estua edukitzea eta elkarren osagarri izatea**, I. Plan Zuzentzailea ebaluatzeko kontsulta egin zaien GGKEek eskatu duten bezala. Gaur egun, Nafarroako Gobernuko Lankidetzak Zerbitzuak bere III. Plan Zuzentzailea du 2021-2024 aldirako; plan hori bat dator epeetan II. Plan Zuzentzaile honekin, eta hori aukera bikaina da bi erakundeen arteko sinergiak indartzeko.

LANKIDETZARAKO NAFARROAKO TOKI-FUNTSA

Udal Programak Funtzaren babesarekin jarraituko du. Hurrengo aldi honetan saiatuko gara Funtzak eskaintzen duen aukera ahalik eta gehien aprobetxatzen **Nafarroako beste toki-erakunde batzuekin koordinazioa, osagarritasuna** eta esperientzia-trukea **indartzeko**, batez ere Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioaren eta lankidetzaren arloan, Iruñeko zein Hegoaldeko toki-erakundeek parte hartzen duten haietan.

UNIBERTSITATEAK ETA BESTE IKASTETXE BATZUK

Iruñeko unibertsitate-ehuna zabala eta askotarikoa da; hirian dauden hiru unibertsitateak horren erakusle dira (NUP, UNAV eta UHUN). Udal Programaren asmoetako bat, hain zuzen ere, ehun horrekiko harremanean eta elkarlanean sakontzea da. Duela zenbait urtetik hona, Nafarroako **Unibertsitate Publikoarekin (NUP)** batera aritu izan gara **elkarlaneko espazio** batzuetan, bertako **udako ikastaroak** eta Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko zenbait ekintza direla medio; eta etorkizunean ere espazio horiek bultzatzeko asmoa dugu. Halaber, NUPek **lankidetzako programa** bat du, eta saiatuko gara horren baitan sinergiak bilatzen eta elkarren osagarri izaten. Unibertsitate-sektorea lankidetzak alderdietan inplikatzeko duten asmo handiagoko beste ekimen batzuk (proiektuei aplikatutako ikerketa, eredu pilotu berritzaileen garapena Hegoaldean, boluntario kualifikatuak, etab.) aztertu beharko dira, betiere errealismoa eta bideragarritasuna bermatuz.


Horrez gain, **Iruñeko ikastetxe eta prestakuntzarako espazioek** elkarlanerako aukera interesgarriak eskaintzen dituzte II. Plan Zuzentzailean, Ikaskuntza-Zerbitzuko ekimenetarako, antzeko ezaugarriak dituzten Hegoaldeko ikastetxeekin elkartrukeak egiteko, Garapenerako Hezikuntzarako, etab.

HEDABIDEAK

Iruñean dauden tokiko hedabideak, Udalaren komunikazio-zerbitzua tarteko, aliatu ezin hobea dira **elkartasuneko eta erantzunkidetasuneko mezuak eta balioak hedatzeko**, eta, horrela, herritar informatu, arduratsu eta konprometituak sortzen laguntzeko. Orobat, oso bide ona dira Udal Programak egiten duen lanaren berri emateko, eta horrek gizartearen babesa handitzen eta Udalaren **gardentasuna nahiz kontuak ematea** areagotzen laguntzen du lankidetzaren esparruan.

UDALERRIEN ETA PROBINTZIEN ESPAINIAKO FEDERAZIOA

Udal Programa elkarlanean aritzen da estatuan FEMPko lankidetzako alorrarekin; izan ere, foro interesgarria da Espainiako lankidetzaren deszentralizatuari buruzko **bizipenak eta jardunbide egokiak partekatzeko**. II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean, elkarlan hori mantenduko da, eta Udal Programa rol aktibo bat hartzen saiatuko da **Iruñeko lankidetzaren eredu propioa eta hausnarketa estrategikoak** hedatzeko orduan.



11. irudia: GNLUPrako funtsezko entitateak/eragileak II. Plan Zuzentzailean

5.5 Udalaren beste zerbitzu batzuekin koordinatzearen garrantzia

II. Plan Zuzentzaile honetan, nahiz eta **badakigun zer zailtasun** dakartzan, Udal Programaren barnean lagundu nahi dugu bereziki, ahal den neurrian, Iruñeko Udaleko **beste alor batzuek garapeneraren aldeko lankidetzaren ezaugarriak eta kontuan har dezaten** beren ekintzak zehazten dituztenean, **udal-politiken arteko koordinazioa eta sinergiak** ahalik eta handienak izan daitezen.

Gure ustez, Udal Programak lankidetza eta garapenerako hezkuntzaren arloan garatzen duen lanak aukera ematen du **beste udal-zerbitzu eta -politika batzuei ekarpenak egin eta haiekin partekatze**ko zer eta guk eskarmentu handiena dugun huraxe: elkartasuna, jasangarritasuna, ekitatea, berdintasuna, ahalduntzea, parte-hartzea, boluntariotza, elkartegintza, etab.

Horregatik, I. Plan Zuzentzailearen ebaluazio-fasean (hori izan da, hain zuzen, diagnostikoaren abiapuntua II. Plan Zuzentzaile hau jorratzeko), arreta berezia jarri da **Udal Programaren eta gainerako udal-zerbitzuen arteko elkarlanerako arlo** potentzialak identifikatzen. Zerbitzu horietako arduradunak zuzenean inplikatu dira posible diren ekimen partekatuak, zailtasunak, inpaktua, bideragarritasuna, gauzatze-mekanismoak eta abar eztabaidatzeko. **Hurrengo koadroak**, hasiera batean planteatutako **ekimen guztiak biltzen ditu**. Ondoren, ekimen horiek bideragarritasunaren eta eraginaren arabera aztertu ziren, **lehentasunezkoztat jotzen zirenak soilik islatzeko helburu gisa**.

ELKARLANERAKO EKIMEN POSIBLEAK UDAL-ZERBITZUKA
Gizarte Zerbitzuak, Komunitate Ekintza eta Kirola
Elkarlana Gizarte Enplegu Babestuko programarekin.
Elkarlana koadernaketa-, tapizgintza-lantaldeekin (GNLUParen errepresentazio materialak/opariak, etab.)
Elkarlana erakusketetarako euskarriak edo beste lan batzuk egiteko.
Gizarte Enplegu Babestuaren Programako beste baliabide batzuekin elkarlanean aritzeko beste lan batzuk.
Iruñeko migratzaileak Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko ekimenetan engeiatzea.
Iruñeko esperientziak eta jardunbide egokiak Hegoaldeko tokiko agentziekin trukatzeko.
Auzoko elkarteak, GGKEekin batera, Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko ekintza eta ekimenetan engeiatzea.
Zerbitzuen baliabideak, oro har, Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko espazio gisa erabiltzeko.
Elkarlana zentro komunitarioekin
Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteria
Elkarlana aniztasunaren eta kulturartekotasunaren arloan, Hegoaldeko begiradatik
Hegoaldeko begirada duten elementuak eta/edo gaiak txertatzea Iruñeko gizarte-erakundearen prestakuntzetan
Partaidetzako sare sozialetan hedatzea GNLUParen ekimenak eta albisteak
Inkestak eta herritarrek ere parte hartzeko prozesuak gauzatzea Erabaki plataformaren bidez
Udal-aretoak eta -espazioak erabiltzeko harremana eta baldintzak erraztea
Herritarren elkarte eta erakundearen erregistro eguneratuari buruzko informazioa ematea.
Boluntariotza sustatzeko programak indartu eta bultzatzea.
Ikaskuntza-Zerbitzua, eskola-taldeak inplikatzeko lankidetzarekin zerikusia duten jardueretan
Irakaskuntza-baliabideen web-gida, GNLUPko eta/edo lankidetzari buruzko dokumentazioa sartzeko
Hezkuntza-prozesuetan eta udal-kudeaketako haur-eskoletan laguntzea elkarren osagarri izateko
Musika-sustapena Joaquín Maya Udalaren Musika Eskolarekin.
GGKEen lankidetza-ekintzak hedatzea gazteen artean
Elkarlana gazteei zuzendutako Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko ekintzak egiteko
Kultura- eta arte-ekimenak, Hegoaldeko begiradatik, ohikoak ez diren taldeak inplikatzeko
Alkatetza
Koordinazioa indartzea GNLUParen ikusgaitasuna areagotzeko. Programaren jarduna helaraztea herritarrei, dela udal-bitartekoak baliatuz dela komunikabideen bidez.
GNLUParen webgunea hobetzea, proiektuen laburpen bat eta beste gai batzuk sartzeko baloratzeko.
Erakundeekiko eta kanpoko harremanak.
Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa
Elkarlana bidezko merkataritzaren arloan
Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioarekin eta Hegoaldeko begiradarekin zerikusia duten jarduerak
Geltokian, azokak, haurrendako elikadura-lantegiak
Irizpide etikoak kontratazio-agirietan eta Udalaren erosketetan
Harremanak Kontuen Ganberarekin
Udal-memoriak
Herritarren eskaerei erantzutea
Udal Programaren aurrekontua berrikusi eta kokatzea Udalaren aurrekontu orokorrean
Lankidetzarekin zerikusia duten ikerketa soziologikoak Iruñean
Elkarlana Udalaren plan estrategikoetan. Azterlan eta analisi estrategikoak egitea.
Koordinazioa 2030 Agendarekin
Behatokia baliatzea lankidetzarekin lotutako materialak, agiriak eta ikerketak eskura jartzeko
Udalaren parte-hartzea kudeatu eta koordinatzea, udalerrien elkarte eta sareetan.
Kultura eta Berdintasuna
Hegoaldeko emakumeen lidergoak eta ahalduntzea partekatzea Iruñeko kolektibo eta erakundeekin

Bizitzaren jasangarritasunaren eta zainketen erantzunkidetasunaren arloko esperientziak partekatzea
"Emakumeen Etxeko" espazioa erabiltzea GGKEen lantegi, ekitaldi eta abarretarako
Hegoaldeko eta berdintasuneko gaiak beste udal-programa batzuetan zeharkako egitea
II. Plan Zuzentzailearen genero-inpaktuaren txostenerako aholkuak ematea
GGKEendako espazioak, Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioak egiteko Civivoxeta eta beste espazio publiko batzuetan
Udal-liburutegi publikoekin lan egitea eta irakurketa sustatzea
Hizkuntza gutxituak sustatzea Euskara
Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna
Ingurumen Hezkuntzako Museoan ikusgaitasuna ematea Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko jarduerari, programazioaren parte bezala
Hegoaldeko tokiko agintariekin esperientziak trukatzeko ingurumen-kudeaketaz, hondakinen tratamenduaz, ur eta saneamenduaz, mankomunitatez eta abarrez
Herritarren Segurtasuna
Bide publikoetan instalazioen erabilera kudeatzea, Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizaziorako karpak eta aldi baterako instalazioak kasu.

6. II. PLAN HONEN ILDO ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Aurrez egindako azterketa osoaren ondorio zuzen gisa, eta egin nahi dugunaren esparrutik eta gure egin ditugun balioetatik abiatuta, II. Plan zuzentzaile honen 2022-2025 aldirako honako hauek definitu ditugu: **azken helburu bat, 5 ildo estrategiko handi eta 26 helburu estrategiko**. Horiek guztiak jarraian biltzen dira.

II. PLAN ZUZENTZAILEAREN AZKEN HELBURUA

IRUÑEKO GARAPENERAKO LANKIDETZARIBERRIZ **BALIOA EMATEA** TRESNA **ERALDATZAILE** GISA, **ALDAKETA ETA ERRONKA GLOBALE**N TESTUINGURU BATEAN, ETA, HORRETARAKO, **TOKIKO ESPARRUAREN** ABANTAILA KONPARATIBOETAN SAKONTZEA.

- **BERRIZ BALIOA EMATEA:** Egungo testuinguruaren aurrean, non sektore batzuek lankidetzaren eredu tradizionala zalantzan jartzen ari diren eta "Hegoaldeko" begirada ahuldu edo disolbatzeko arriskua dagoen, krisialdiaren premia eta/edo eragin mediatikoa eragin zuzena izaten ari delako Iparraldeko gizarteetan, eta, zehazki Iruñean
- **ERALDATZAILEA:** Lortu nahi den lankidetzaren ereduak asistentzialismo hutsetik haratago joan nahi du, eta Hegoaldean gaitasunak eta egiturak indartzea bilatzen du, eta, aldi berean, Iruñean herritar kontzienteak eta konprometituak sortzea, betiere ikuspegi global eta elkarri lotutakoarekin, gai hauetan jarritz azpimarra: giza eskubideak, kolektibo zaurgarriak, generoa eta ingurumena.
- **ALDAKETA ETA ERRONKA GLOBALAK:** Hainbat faktore kontuan hartuta, hala nola duela gutxiako krisi ekonomikoa, COVIDaren ondoriozko gizarte- eta osasun-krisia, egungo Ukrainako gerra eta haren ondorioak mundu mailan, krisi klimatikoa, etab. Horri guztiari gehitu behar zaio GGKEen planteamendu berria eta barne eztabaida lan-ereduaz, lehentasunez eta ikuspegiez.
- **TOKIKO ESPARRUA:** Gure ustez Iruñeko Udala bezalako tokiko entitate batek bere mugez jakitun izan behar du, baina baita bere ahalmenez eta balio erantsiaz ere, eta azken horiek ahalik eta gehien aprobetxatu nahi ditugu (herritarrengandik gertu egotea, malgutasuna, departamentuen arteko elkarlana, irisgarritasuna eta osagarritasuna, eraldaketarako hezkuntza, etab.)

Azken helburuaren adierazleak/jomugak:

- ❖ *Urtero lankidetzara bideratutako **udal-aurrekontuaren** ehunekoa % 0,7tik gora mantentzen da.*
- ❖ *Aktibo eta operatibo mantentzen dira III. Plan Zuzentzailean aurreikusitako lankidetzako **tresna eta modalitate** guztiak, haren indarraldi osoan zehar.*
- ❖ *II. Plan Zuzentzaile honetan markatutako **helburu eta jomugen betetze-maila** % 70etik gora mantentzen da hura amaitzean*
- ❖ ***GNLUParen jardunaren, inaktuaren eta balio erantsiaren** balorazio orokor positiboa II. Plan Zuzentzailearen indarraldian, gutxienez, kontsultatutako funtsezko eragileen % 70aren iritziz*

Azken helburu handi hori betetzeko II. Plan Zuzentzailearen honako **jarduketa-ildo handi eta helburu estrategiko** hauek proposatzen dira **2022-2025 aldirako**:

6.1 Iruñeko GGKEei laguntzeko tresnen koherentzia eta inpaktua hobetzea, funtseko eragile diren heinean

- 6.1.1 **Hegoaldeko Giza garapenerako proiektuen** izaera ireki eta malguarekin jarraitzea, GNLUParen elementu nagusi den aldetik, herrialde/eskualde zaurgarrienetan sakonduz
- 6.1.2 **Hegoaldeko toki-erakundeekin egindako programetan** aurrera egitea, asmo handiagoko ikuspegi eta ekimen berritzaileak garatzeko abangoardia gisa, eta errepikatu daitezkeen lezioak eskuratzeko
- 6.1.3 Iruñean **unean uneko Sentsibilizazio-jarduerak** egiteko deialdia mantentzea, tresna azkar eta irisgarri gisa, eta haren osagarritasuna gainerako instrumentuekin indartzea
- 6.1.4 Iruñean **garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak** gauzatzeko deialdia sustatzea, tokian tokiko balio erantsia duen tresna eraldatzaile gisa, eta haren ikuspegi globala indartzea
- 6.1.5 Iruñean **Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako programen** tresna finkatzea, asmo handiagoko ekintza berritzaileagoak planteatu nahi dituzten GGKEendako aukera erakargarri eta irisgarri gisa
- 6.1.6 Berrikustea **Laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa** delako tresna, haren helburua – berehalako beharrei, larriei, bat-batean gertatutakoei eta aurreikusi gabekoei erantzutea– indartzeko xedez.

6.2 GNLUParen berezko rola, jarduna eta balio erantsia indartzea

- 6.2.1 **GNLUParen lantalde teknikoaren** gaitasun profesionalak, errefortzu teknikoa eta aurrekontu-baliabideak indartzen jarraitzea.
- 6.2.2 GNLUPak egindako eta/edo babestutako jarduketan **kanpo-ebaluazioei** berriz ekitea, horien ondorioak eta ikasitako lezioak hedatuz
- 6.2.3 **GNLUParen berezko ekimenak** areagotzea balio erantsi eta abantaila konparatibo gehiago dituen gaian
- 6.2.4 Iruñeko **GGKEen koordinazioa eta gaitasunak indartzen** laguntzea, instituzionalki haien lana babestuz eta erraztuz, dela GNLUParen bidez eta/edo beste udal-alor batzuekin
- 6.2.5 **Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseilua** indartzen eta dinamizatzen jarraitzea, esparru politikoaren eta GGKEen arteko topaketarako funtsezko organo den aldetik, eta hura lankidetzako beste eragile batzuei irekitzea

6.3 GNLUParen eta Iruñeko beste udal-zerbitzu batzuen arteko koordinazioa eta osagarritasun politikoa eta instituzionala bultzatzea

- 6.3.1 Elkarlana sustatzea **Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorrarekin**
- 6.3.2 Elkarlana sustatzea **Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrarekin**
- 6.3.3 Elkarlana sustatzea **Alkatetzarekin** (Protokoloa eta Komunikazioa barne)

- 6.3.4 Elkarlana sustatzea **Kultura eta Berdintasuneko Alorrarekin**
- 6.3.5 Elkarlan estrategikoak sustatzea **beste udal-zerbitzu batzuekin**
- 6.3.6 **Iruñeko tokiko politika erabakitzeko espazioetan** parte hartzen jarraitzea, GNLUParen lana indartu eta bultzatzeko

6.4 GNLUParen eta lankidetzako funtsezko beste eragile batzuen arteko koordinazioa eta sinergiak hobetzea

- 6.4.1 Elkarlana, koordinazioa eta sinergiak indartzea **Nafarroako Gobernuko Lankidetzaz Zerbitzuarekin** eta **Nafarroako Lankidetzaz Kontseiluarekin**
- 6.4.2 **Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtza** babesten jarraitzea, eta balio erantsi handiagoa ematea, Nafarroako beste toki erakunde batzuekin elkartrukean aritzeko eta elkarlanerako foro gisa
- 6.4.3 Esperientziak, jardunbide egokiak eta ekimen politiko publikoak partekatzen jarraitzea **beste toki-erakunde** batzuekin, GNLUParen bidez zuzenean, eta/edo FEMPen esparruan.
- 6.4.4 **Ikastetxeekiko eta beste prestakuntza-espazio** batzuekiko elkarlana sendotzea eta hura ikusaraztea, lankidetzarako eragile garrantzitsu baitira ikerketa-ekintzaren arloan
- 6.4.5 **Iruñeko beste herri-entitate** batzuekin –lankidetzaren alorrari lotuta egon beharrik gabe– lankidetzako ekimenetan elkarlanean aritzea sustatzea.

6.5 GNLUParen gardentasuna, ikusgaitasuna eta babesa areagotzea Iruñeko herritarren eta funtsezko beste eragile batzuen artean

- 6.5.1 **GNLUParen zereginari buruzko informazio, kontu emate eta gardentasuneko** ohiko konpromisoekin jarraitzea, hala herritarrekiko nola Iruñeko gainerako funtsezko eragileekiko
- 6.5.2 **Onlineko komunikazioko tresnak** sustatzea GNLUParen lanaren informazio interaktiborako bide gisa
- 6.5.3 **NGGKEKekin dugun elkarlanerako** esparrua berrikusi eta zabaltzea, funtsezko organoa baita herritarrak informatu eta sensibilizatzeko lankidetzaren arloan, baita GGKEen arteko koordinazioan eta komunikazioan ere
- 6.5.4 **Boluntario**-ekimenak bultzatzea lankidetzaren arloan, estrategia eraldatzaile gisa eta herritarrak aktiboki engaiatzeko estrategia gisa

7. II. PLAN ZUZENTZAILERAKO JOMUGAK ETA ADIERAZLE OPERATIBOAK

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHAZTAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2022	2023	2024	2025
1.IRUÑEKO GGKEI LAGUNTZEKO TRESNEN KOHERENTZIA ETA INPAKTUA HOBETZE FUNTSEZKO ERAGILE DIREN HEINEAN	1.1 Hegoaldeko Giza garapenerako proiektuen izaera ireki eta malguarekin jarraitzea, GNLUParen elementu nagusi den aldetik, herrialde/eskualde zaurgarrienetan sakonduz	-Hegoaldean giza garapenerako proiektuak egiteko urteko deialdia maitatza baino lehen argitaratzea NAOen, eta GNLUParen dirulaguntza-deialdietarako erabilgarri dagoen guztizkoaren % 66 bideratzea horretara, gutxi gorabehera. -Onartutako proiektuen % 75 herrialde eta/edo eskualde zehatzetan kokatzea, Giza Garapenerako indize baxu edo oso baxua dutenetan (edo zaurgarritasun handikoetan, behar bezala justifikatuta) -Onartutako urteko proiektuetan oreka geografikoa mantentzea (batez ere Afrikan, Hego Amerikan, Erdialdeko Amerikan eta Karibearen) -Onartutako urteko proiektuen % 70en helburua tokian tokiko oinarritzeko behar sozialei erantzutea izatea -Iruñeko GGKEen % 70ek, gutxienez, oraindik ere iritzi ona izatea Hegoaldeko proiektuetarako tresnaren ikuspegi ireki, malgu eta irisgarriari buruz			
	1.2 Hegoaldeko toki-erakundeekin egindako programetan aurrera egitea, asmo handiagoko ikuspegi eta ekimen berritzaileak garatzeko abangoardia gisa, eta errepikatu daitezkeen lezioak eskuratzea	-Hegoaldeko toki-erakundeekin egindako programetako deialdia berrikustea, hainbat alderdi indartuz: jarraitutasuna, berrikuntza, osagarritasuna eta emaitzen araberako kudeaketa			-Hegoaldeko toki-erakundeekin egindako programetako esperientziak eta ikasitako lezioak hedatzeko ekimen/ekitaldi 1 (gutxienez) gauzatzea
		-Hegoaldeko toki-erakundeekin programak egiteko urteko deialdia maitatza baino lehen argitaratzea NAOen, eta GNLUParen dirulaguntza-deialdietarako erabilgarri dagoen guztizkoaren % 10eko aurrekontua bideratzea horretara, gutxi gorabehera. -Hegoaldeko toki-erakundeekin egindako programen % 100ek funtsezko elementu gisa txertatzea toki-erakundeak indartzeko alderdiak -Hegoaldeko toki-erakundeekin egindako programen % 50ek, gutxienez, balio erantsiko elementu bat edo batzuk izatea (berrikuntza, sinergiak Hegoaldeko beste proiektu batzuekin eta/edo garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko ekintzak Iruñean, tradizionalak ez diren eragileen inplikazioa, elkarlan instituzionala Iruñeko arduradun tekniko eta politikoei, etab.) -Iruñeko GGKEen % 70ek, gutxienez, iritzi ona izatea Hegoaldeko toki-erakundeekin egindako programen ikuspegiari buruz: irekia eta emaitzak ardatz dituen			
	1.3 Iruñean unean uneko Sentsibilizazio-jarduerak egiteko deialdia mantentzea, tresna azkar eta irisgarri gisa, haren osagarritasuna gainerako instrumentuekin indartuz	-Unean uneko Sentsibilizazio-jardueren deialdia berrikustea, erakargarriagoa eta eskuragarriagoa izan dadin GGKEen behar, gaitasun eta interesetarako, eta une bakoitzeko testuingururako egokia			
		-Unean uneko Sentsibilizazio-jarduerak egiteko urteko deialdia apirila baino lehen argitaratzea NAOen, eta GNLUParen dirulaguntza-deialdietarako erabilgarri dagoen guztizkoaren % 1eko aurrekontua bideratzea horretara, gutxi gorabehera. -Onartutako Unean uneko Sentsibilizazio-jardueren % 75ek, gutxienez, GNLUPak babestutako beste ekimen batzuekiko sinergiak/osagarritasunak izatea -Iruñeko GGKEen % 70ek, gutxienez, iritzi ona izatea Unean uneko Sentsibilizazio-jarduretarako tresnaren osagarritasunari eta erabilgarritasunari buruz			
1.4 Iruñean garapeneraren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak gauzatzeko deialdia sustatzea, tokian tokiko balio erantsia duen tresna eraldatzaile gisa, haren ikuspegi globala indartuz	-Garapeneraren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egiteko urteko deialdia apirila baino lehen argitaratzea NAOen, eta GNLUParen dirulaguntza-deialdietarako erabilgarri dagoen guztizkoaren % 8ko aurrekontua bideratzea horretara, gutxi gorabehera -Onartutako Garapeneraren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuen % 75ek ardatz izatea II. Plan Zuzentzaile honetan jasotako gai eta alderdiak (giza eskubideak, generoa, ingurumen-jasangarritasuna, desgaitasuna, kultur aniztasuna, bidezko merkataritza, etab.) -Iruñeko GGKEen % 70ek, gutxienez, iritzi ona izatea Iruñean Garapeneraren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-proiektuak egiteko tresnaren egokitasunari eta balio erantsiaren ekarpenari buruz				
1.5 Iruñean Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako	-Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako programen deialdia berrikustea, eskuragarriagoa eta GGKEen behar eta aukeretarako erakargarriagoa izan dadin, eta testuinguruari egokitu			-Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako programetako esperientziak eta ikasitako lezioak hedatzeko gutxienez ekimen/ekitaldi 1 gauzatzea Iruñean	

	programen tresna finkatzea, asmo handiagoko ekintza berritzaileagoak planteatu nahi dituzten GGKEendako aukera erakargarri eta irisgarri gisa	-Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako programak egiteko urteko deialdia apirila baino lehen argitaratzea NAOn, eta GNLUParen dirulaguntza-deialdietarako erabilgarri dagoen guztizkoaren % 4ko aurrekontua bideratzea horretara, gutxi gorabehera -Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako programen proposamen berri 1 aurkeztea, gutxienez, aurreko urteetakoen jarraipena direnez gain -Iruñeko Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako programen % 75ek, gutxienez, balio erantsiko elementu bat edo batzuk izatea (GGKEen partzuergoak, beste gizarte-erakundeekin/-plataformekin eta tradizionalak ez diren eragileekin lan egitea, GNLUPak babestutako beste ekimen batzuekiko sinergiak/osagarritasunak, ikuspegi berritzaileak, etab.) -Iruñeko GGKEen % 70ek, gutxienez, iritzi ona izatea Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntzako programen irisgarritasunari, egokitasunari, balio erantsiari eta eragin eraldatzaileari buruz
	1.6 Berrikustea Laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa delako tresna, haren helburua – berehalako beharrei, larriei, bat-batean gertatutakoei eta aurreikusi gabekoei erantzutea– indartzeko xedez	-Laguntza humanitarioko eta larrialdietako deialdia berrikustea, koherenteagoa eta egokiagoa izan dadin berehalako beharrei, larriei, bat-batean gertatutakoei eta aurreikusi gabekoei erantzuteko
		-Laguntza humanitarioko eta larrialdietako urteko deialdia apirila baino lehen argitaratzea NAOn, eta GNLUParen dirulaguntza-deialdietarako erabilgarri dagoen guztizkoaren % 8ko aurrekontua bideratzea horretara, gutxi gorabehera. -Laguntza humanitarioko eta larrialdietako proposamenak modu mailakatuan aurkeztea, larrialdiak agertu ahala, funtsak deialdia ireki eta berehala amaitzea saihestuz -Laguntza humanitarioko eta larrialdietako ekintzen % 75ek, gutxienez, GNLUPak babestutako beste ekimen batzuekiko sinergiak/osagarritasunak izatea -Iruñeko GGKEen % 70ek, gutxienez, iritzi ona izatea Laguntza humanitarioko eta larrialdietako tresnaren koherentzia, balio erantsi, sinergia eta osagarritasunei buruz

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHAZTAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2022	2023	2024	2025
2. GNLUParen BEREZKO ROLA, JARDUNA ETA BALIO ERANTSIA INDARTzea	2.1 GNLUParen lantalde teknikoaren gaitasunak, langileak eta aurrekontu-baliabideak indartzen jarraitzea	-II. Plan Zuzentzaile honetan agindutako jarduerak egiteko langileen, tresnen eta GNLUParen baliabideen beharrak berrikusi eta planifikatzea	Aparteko errefortzu profesionalak planteatzea zeregin espezifiko eta apartekoetarako		
		-GNLUP kudeatzeko aurrekontua GNLUParen guztizkoaren % 8 inguruan mantentzea, eta GNLUParen berezko ekintzei esleitutakoa, % 4 inguruan -GNLUParen langile erregular eta egonkorak (teknikariak eta administrariak) gutxienez 3 izaten jarraitzea, II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean -GNLUParen lantaldea haren lanarekin lotutako 3 prestakuntza-/birziklatze-jardueretara joatea, gutxienez, II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean -GNLUParen lantaldeak eta GGKEen % 70ek, gutxienez, uste dute GNLUPko lantaldearen gaitasunak, baliabideak eta jarduna indartu egin direla II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean			
	2.2 GNLUPak egindako eta/edo babestutako jarduketaren kanpo-ebaluazioei berriz ekitea, eta horien ondorioak eta ikasitako lezioak hedatzea	-GNLUParen ebaluazio-plan bat egitea (adib. zer ebaluatu nahi da, zergatik, non, noiz eta zer baliabideekin), II. Plan Zuzentzailearen indarraldi osorako	-GNLUPak babestutako ekimen eta/edo tresnaren baten kanpo-ebaluazio 1 egitea, gutxienez, eta ebaluazio horretatik ateratako ondorioak eta ikasitako lezioak hedatzea		-GNLUPak babestutako ekimen eta/edo tresnaren baten kanpo-ebaluazio 1 egitea, gutxienez, eta ebaluazio horretatik ateratako ondorioak eta ikasitako lezioak hedatzea
	2.3 GNLUParen berezko ekimenak areagotzea balio erantsi eta abantaila konparatibo gehiago dituen alderdietan/gaietan	-GNLUParen berezko ekimenen plan bat egitea II. Plan Zuzentzailearen indarraldirako, gaiak, tresnak, ekintzak, helburuak, baliabideak eta beste entitate batzuekiko koordinazioa barne	-GNLUParen berezko ekimen 1 gauzatzea, gutxienez, eta haren balio erantsiaren eta emaitzen barne-ebaluazioa egitea eta horiek hedatzea	-GNLUParen berezko ekimen 1 gauzatzea, gutxienez, eta haren balio erantsiaren eta emaitzen barne-ebaluazioa egitea eta horiek hedatzea	-GNLUParen berezko ekimen 1 gauzatzea, gutxienez, eta haren balio erantsiaren eta emaitzen barne-ebaluazioa egitea eta horiek hedatzea
	2.4 Iruñeko GGKEen koordinazioa eta gaitasunak indartzen laguntzea, instituzionalak haien lana babestuz eta erraztuz, GNLUParen bidez eta/edo beste udal-alor batzuekin	-Iruñeko GGKEen behar tekniko/instituzionalen diagnostiko bat egitea GGKEekin eta funtsezko beste eragile batzuekin batera (Nafarroako Gobernu Lankidetzaren Zerbitzua kasu), eta GNLUPak II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean eman beharreko lehentasuneko babesei buruzko plan bat diseinatzea		-Iruñeko GGKEen gaitasunak (teknikoak eta/edo instituzionalak) indartzeko 2 ekimen gauzatzea, gutxienez, dela GNLUPak bakarka, dela beste eragile batzuekin batera, eta parte hartzen duten GGKEen % 70ak, gutxienez, positiboki baloratzea ekimen horiek	
		-II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean, gutxienez 150 bilera egitea urtero, Iruñeko GGKEei babes erregularra eta etengabea emateari lotuta, batez ere dirulaguntzen deialdiei buruzko informazioa emateko, boluntarioak bideratzeko, GGKEen artean koordinatzeko, tokiko bazkideekiko harreman instituzionalak indartzeko eta beste udal-zerbitzu/alor batzuekin koordinatzeko (adib., Udalaren espazioak, aretoak eta baliabideak erabiltzea GGKEen jardueretarako) -GGKEen % 70ek, gutxienez, uste du GNLUPak bere lana laguntzen eta errazten duela, bai maila teknikoan, bai instituzionalean			
2.5 Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseilua indartzen eta dinamizatzen jarraitzea, esparru politikoaren eta GGKEen arteko topaketarako funtsezko organo den aldetik, eta hura lankidetzako beste eragile batzuei irekitzea	-Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluaren araudia berrikustea, Udalaren Herritarren Partaidetzako Erregelamendu berrian ezarritako betekizunak, estandarrak eta formatuak betetzen direla bermatzeko		-Gutxienez 2 eragile "berrik" (adibidez, Udalako beste programa batzuetako arduradunak, Hegoaldeko tokiko agintariak, gizarte-erakundeak eta abarrek) aktiboki parte hartzea, gonbidatu gisa, Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluaren bileraren batean		
	-Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluaren bilera 1 egitea urtean, gutxienez, eta ordezkari politikoaren % 75 eta GGKEen ordezkarien % 100 bertaratzea, gutxienez -Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluan II. Plan zuzentzailea bera aurkeztea eta eztabaidatzea, baita haren ebaluazioa eta mugari nagusiak ere (urteko deialdiak, ebaluazioak, udal-alorren arteko elkarlana, GNLUParen berezko ekintzak, ikerketak, txostenak, etab.) -Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluaren bilera guztietara NGGKEK gonbidatzea, eta horrek gonbidatu gisa parte hartzea, hitzarekin baina botorik gabe -Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluko kideen % 70ek, gutxienez, positibotzat jotzen ditu organo horren funtzionamendua, antolaketa eta erabilgarritasuna				

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHATZAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2022	2023	2024	2025
3. GNLUParen ETA IRUÑEKO BESTE UDAL-ZERBITZU BATZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA OSAGARRITASUN POLITIKOA ETA	3.1 Elkarlana sustatzea Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorrarekin	-Bilerak egitea Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorreko arduradun eta teknikariek GNLUParekin elkarlana zehazteko (helburuak, ekimenak, mekanismoak, baliabideak eta epeak), oinarri hartuta I. Plan Zuzentzailearen ebaluazioaren diagnostikoa eta identifikatutako aukeren esparrua			-Elkarrekin izandako esperientziak hedatzea eta positiboki baloratzea GNLUPak, Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorrak eta GGKEek
			-GNLUPak eta Gizarte Zerbitzuetako, Komunitate Ekintzako eta Kiroleko Alorrak gutxienez 2 ekimen gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako arlo hauetan: enplegu babestua, etorkinak, Hegoaldeko agintariek esperientziak trukatzeko, auzoko entitateekin lan egitea, koordinazioa eta sinergiak zentro komunitarioen sarearekin		
	3.2 Elkarlana sustatzea Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrarekin	-Bilerak egitea Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko arduradun eta teknikariek GNLUParekin elkarlana zehazteko (helburuak, ekimenak, mekanismoak, baliabideak eta epeak), oinarri hartuta I. Plan Zuzentzailearen ebaluazioaren diagnostikoa eta identifikatutako aukeren esparrua			-Elkarrekin izandako esperientziak hedatzea eta positiboki baloratzea GNLUPak, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrak eta GGKEek
			-GNLUPak eta Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrak gutxienez 2 ekimen gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako arlo hauetan: aniztasuna eta kulturartekotasuna, Hegoaldeko begirada Iruñeko oinarritzko gizarte-entitateetan, parte hartzeko prozesuak herritarrekin lankidetzaren arloan, boluntariora sustatzea eta hedatzea, GNLUParen zeregina sare sozialetan hedatzea, gazteen arteko lankidetzaren ekimenetan parte hartzea eta horiek hedatzea, ikaskuntza eta zerbitzua, Hegoaldeko ikuspegia duten baliabideak irakasleendako, haur-eskolak, Udalaren musika-eskola		
	3.3 Elkarlana sustatzea Alkatetzarekin (Protokoloa eta Komunikazioa barne)	-Bilerak egitea Alkatetzako arduradun eta teknikariek (Protokoloa eta Komunikazioa barne) GNLUParekin elkarlana zehazteko (helburuak, ekimenak, mekanismoak, baliabideak eta epeak), oinarri hartuta I. Plan Zuzentzailearen ebaluazioaren diagnostikoa eta identifikatutako aukeren esparrua			-GNLUPak, Alkatetzak eta GGKEek positiboki baloratzea elkarrekin izandako esperientziak eta horiek hedatzea
			-GNLUPak eta Alkatetzak (Protokoloa eta Komunikazio zerbitzuak barne) gutxienez 2 ekimen gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako arlo hauetan: GNLUParen lana herritarrei ikusaraztea eta komunikabideekiko harremana, GNLUParen onlineko tresnak hobetzea, harreman instituzionalak Hegoaldeko tokiko agintarien bisitetan		
	3.4 Elkarlana sustatzea Kultura eta Berdintasuneko Alorrarekin	-Bilerak egitea Kultura eta Berdintasuneko Alorreko arduradun eta teknikariek GNLUParekin elkarlana zehazteko (helburuak, ekimenak, mekanismoak, baliabideak eta epeak), oinarri hartuta I. Plan Zuzentzailearen ebaluazioaren diagnostikoa eta identifikatutako aukeren esparrua			-GNLUPak, Kultura eta Berdintasuneko Alorrak eta GGKEek positiboki baloratzea elkarrekin izandako esperientziak eta horiek hedatzea
			-GNLUPak eta Kultura eta Berdintasuneko Alorrak elkarrekin egindako ekimen 1, gutxienez, gauzatzea, ahal dela honako arlo hauetan: Hegoaldeko emakumeen lidergoa eta ahalduztzea, Emakumeen Etxearen erabilera, II. Plan Zuzentzailearen genero-inpaktua txertatzea eta neurtzea, liburutegi publikoak eta irakurketaren sustapena, hizkuntza gutxiak berreskuratzeko programak euskararekin lotzea		
	3.5 Elkarlan estrategikoak sustatzea beste udal-zerbitzu batzuekin	-Bilerak egitea Udaleko gainerako Alorretako arduradun eta teknikariek (Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismoa; Zerbitzu Orokorak; Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna; Herritarren Segurutasuna; Hirigintza, Etxebizitza eta Osasuna) GNLUParekin elkarlanean aritzeko ekimenak eztabaidatu eta zehazte aldera.			-GNLUPak, inplikaturako gainerako udal-zerbitzuek eta GGKEek positiboki baloratzea elkarrekin izandako esperientziak eta horiek hedatzea

		-GNLUPak eta Udaleko gainerako programek gutxienez ekimen 1 gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako alor hauekin: 1) Gobernu Estrategikoa, Merkataritza eta Turismoa (Hegoaldeko begirada Geltokin, azoketan eta elikadura-lantegietan; irizpide etikoak Udalaren kontratazio-agirietan; 2030 Agenda; Behatokian parte-hartzea eta elkarrekin ikerketak egitea; udalerrien sare eta elkarteekin lotura; GNLUParen gardentasuna eta kontu ematea memoria eta kontsulten bidez; GNLUParen aurrekontua aurrekontu orokorrean sartzea); 2) Proiektu Estrategikoak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna (Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioa Ingurumen Hezkuntzako Museoan; Hegoaldeko agintariekin esperientziak trukatzeko ingurumena, hondakinak, ura eta saneamendua eta mankomunitateak kudeatzeko programetan); 3) Herritarren Segurtasuna (Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazioko ekitaldiak bide publikoan)
3.6 Iruñeko tokiko politika erabakitzeke espazioetan parte hartzen jarraitzea, GNLUParen lana indartu eta bultzatzeko		-GNLUPak erregularitasunez parte hartzea topaketarako eta eztabaida politikorako espazioetan toki mailan (adib. Herritarren Aferen Batzordea eta beste), non zuzenean edo zeharka Udalaren lankidetzarekin zerikusia duten gaiak lantzen baitira

ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHAZTAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2022	2023	2024	2025
4. GNLUParen eta LANKIDETZAKO FUNTSEZKO BESTE ERAGILE BATZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA SINERGIAK HOBETZEA	4.1 Elkarlana, koordinazioa eta sinergiak indartzea Nafarroako Gobernu Lankidetzaren Zerbitzuarekin eta Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluarekin	-Urtean 2 bilera egitea, gutxienez, GNLUP eta Nafarroako Gobernu Lankidetzaren Zerbitzuaren artean, koordinatzeko eta elkarlanean aritzeko -GNLUParen erregularatasunaz (urtero) parte hartzea Nafarroako Lankidetzaren Kontseiluaren bileretan -GNLUParen eta Nafarroako Gobernu Lankidetzaren Zerbitzuaren gutxienez 2 ekimen gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako arlo hauetan: GGKEen prestakuntza, proiektu/programen ebaluazioak, lankidetzari buruzko azterlanak eta analisiak, nazioarteko boluntariotza, Garapenerako Hezkuntza, NGGKEaren baterako finantzazioa, bi entitateek batera finantzatzeko proiektuen baremazioa eta jarraipena, koordinazio teknikoa lan-ildoetan.			
	4.2 Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsekin babesten jarraitzea, balio erantsi handiagoa emanez, Nafarroako beste toki erakunde batzuekin elkartrukean aritzeko eta elkarlanerako foro gisa	-Urtean 2 bilera egitea, gutxienez, GNLUP eta Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsekin babesten jarraitzea, koordinatzeko, elkarlanean aritzeko eta esperientziak hedatzeko -GNLUParen eta Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsekin gutxienez 2 ekimen gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako arlo hauetan: esperientziak hedatzeko eta trukatzeko GNLUP eta Nafarroako beste udalari batzuen artean, proiektu/programen ebaluazioak, nazioarteko boluntariotza, Garapenerako Hezkuntza, NGGKEaren baterako finantzazioa, bi entitateek batera finantzatzeko proiektuen baremazioa eta jarraipena, koordinazio teknikoa lan-ildoetan.			
	4.3 Esperientziak, jardunbide egokiak eta ekimen politiko publikoak partekatzen jarraitzea beste toki-erakunde batzuekin, GNLUParen bidez zuzenean eta/edo FEMPen esparruan	-GNLUParen erregularatasunaz (urtero) parte hartzen jarraitzea FEMPen antolatutako koordinazio-bileretan, ekimen politikoetan eta esperientzien trukatzeko -II. Plan Zuzentzailearen aurkeztea eta hedatzea eta hura ebaluatzea FEMPen esparruan -GNLUParen erregularatasunaz betetzea (gutxienez urtero) FEMPen informazio-eskakizunak (Garapenerako Laguntza Ofizialari buruzko txostenak, GJHei buruzkoak, berriazko ikerketa eta diagnostikoetarako galdetegiak, etab.) -GNLUParen eta beste toki-erakunde batzuen arteko lankidetzarako ekimen pilotu bat identifikatzea, gutxienez, II. Plan Zuzentzailearen esparruan gauzatzeko			
	4.4 Ikastetxe eta beste hezkuntza-espazio batzuekin elkarlana sendotzea eta hura ikusaraztea, lankidetzaren eragile garrantzitsu baitira ikerketa-ekintzen arloan	-Hezkuntza-zentroekin (unibertsitateak, Lanbide Heziketako zentroak, hezkuntza-eremuak, etab.) egin daitezkeen elkarlanak identifikatzea, eta horiek baterako ekimenetan zehaztea II. Plan Zuzentzailearen indarraldirako			-Bi aldeek eta GGKEek positiboki baloratzea GNLUParen eta hezkuntza-zentroen arteko elkarlana/koordinazioa eta hura hedatzea
			-GNLUParen eta hezkuntza-zentroek gutxienez 2 ekimen gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako arlo hauetan: ikerketa-ekintza; praktikak eta nazioarteko boluntariotza; GNLUParen lantaldearen zeregin teknikoetan babesa ematea; lankidetzari buruzko ikerketak, azterketak eta diagnostikoak; Hegoaldeko hezkuntza-entitateekin trukeak egitea		
	4.6 Elkarlana sustatzea lankidetzako ekimenak egiteko Iruñeko oinarritzako elkarrekin eta herritarren beste entitate batzuekin	-Iruñeko oinarritzako elkarrekin eta herritarren beste entitate batzuekin (emakume-, migratzaile- eta auzotar-elkarrekin, kulturalak, ekologistak, etab.) egin daitezkeen elkarlanak identifikatzea, eta horiek baterako ekimenetan zehaztea II. Plan Zuzentzailearen indarraldirako			-Bi aldeek eta GGKEek positiboki baloratzea GNLUParen eta oinarritzako elkarrekin eta herritarren beste entitate batzuen arteko elkarlana/koordinazioa eta hura hedatzea
			-GNLUParen eta oinarritzako elkarrekin eta herritarren beste entitate batzuekin gutxienez 2 ekimen gauzatzea elkarrekin, ahal dela honako arlo hauetan: GNLUParen lana hedatzea, Garapenerako Hezkuntzako baterako ekimenak, Hegoaldeko ikuspegia zeharkako bihurtzea haien programetan/ekintzetan, praktika onak eta Hegoaldeko proiektuetara "esportatu" daitezkeen ereduak, esperientziak trukatzeko eta loturak egitea Hegoaldeko beste gizarte-erakunde edo oinarritzako erakunde batzuekin		


ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK		JOMUGA ZEHAZKAK, ADIERAZLEAK ETA EKINTZAK			
		2022	2023	2024	2025
5. GNLUParen GARDENTASUNA, IKUSGAITASUNA ETA BABESA AREAGOTZEA IRUÑEKO HERRITARREN ETA FUNTSEZKO BESTE ERAGILE	5.1 GNLUParen zereginari buruzko informazio, kontu emate eta gardentasuneko ohiko konpromisoekin jarraitzea, hala herritarrekiko nola Iruñeko gainerako funtsezko eragileekiko	-Herritarrei eta Iruñeko gainerako funtsezko eragileei publikoki helaraztea II. Plan Zuzentzailea -Bilerak egitea Gobernu Estrategikoarekin elkarlana eta GNLUParen gardentasuneko eta ikusgaitasun instituzionaleko protokoloak hobetzeko -GNLUParen zerbitzu-gutuna berrikustea II. Plan Zuzentzailearen edukietara egokitzea			-II. Plan Zuzentzailearen kanpo-ebaluazioa egitea, eta hura publikoki hedatzea herritarren eta gainerako funtsezko eragileen artean
		-Urtero GNLUParen Jardueren Memoria egitea, tresna, modalitate eta entitate onuradun bakoitzaren informazio xehatuarekin, eta hura publikoki hedatzea Iruñeko herritarren eta gainerako funtsezko eragileen artean -GNLUPak beste udal-zerbitzu batzuekin (Komunikazioa, Gobernu Estrategikoa, etab.) batera elkarlanean egindako lana hedatzeko 3 ekimen instituzional gauzatzea, gutxienez -GNLUPak urtero egindako dirulaguntza-deialdiak hedatzea, GGKEei zuzendutako informazio-saio, prentsa-ohar, e-mailen bidalketa masibo, webgunea eta abarren bidez -GNLUParen beste mugarri garrantzitsu batzuk hedatzea (kanpo-ebaluazioak, ikerketak, bisita instituzionalak, etab.) II. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean -Orotara, GNLUPari buruzko 20 prentsa-ohar / agerraldi komunikabideetan, gutxienez, II. Plan Zuzentzailearen 4 urteko indarraldian			
	5.2 Onlineko komunikazioko tresnak sustatzea GNLUParen lanaren informazio interaktiborako bide gisa		-GNLUPak udal-webgunean dituen edukiak berrikustea eta eguneratzea Udalaren Komunikazio Zerbitzuarekin (Alkatetza) batera, hura erakargarriago eta interaktiboago egite aldera -GNLUParen presentzia sare sozialetan indartzeko estrategia bat eta protokoloak adostea Herritarren Partaidetzako zerbitzuarekin batera		-GNLUParen webgunearen erabiltzaileen eta sare sozialetako jarraitzaileen kopurua ebaluatzea, eta haren joera gorakorra izatea II. Plan Zuzentzailearen indarraldian
		-GNLUParen webgunearen edukia maiztasunaz (sei hilean behin, gutxienez) eguneratzea, Komunikazio Zerbitzuarekin elkarlanean -GNLUParekin zerikusia duten edukiak hedatzea sare sozialetan urtean 3 aldiz, gutxienez, Herritarren Partaidetzako zerbitzuarekin elkarlanean			
	5.3 NGGKEKekin dugun elkarlanerako esparrua berrikusi eta zabaltzea, funtsezko organoa baita herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko lankidetzaren arloan, baita GGKEen arteko koordinazioan eta komunikazioan ere	-GNLUParen eta NGGKEKren arteko elkarlanerako hitzarmenaren edukia berrikustea hurrengo 4 urteetarako (horretarako informazioa trukatzuz Nafarroako Gobernuarekin eta Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtsekin), GNLUParen eta GGKEen lanaren hedapena eta herritarrei emandako informazioa indartuz			-GNLUParen eta NGGKEKren arteko elkarlanerako hitzarmena ebaluatzea, eta bi aldeak egindakoarekin pozik agertzea
	5.4 Boluntario-ekimenak bultzatzea lankidetzaren arloan, estrategia eraldatzaile gisa eta herritarrak aktiboki engaiatzeko	-Nazioarteko lankidetzako boluntariotza bultzatzeko ekimenak identifikatzea, ahal bada honako hauekin elkarlanean: Nafarroako Gobernuko Lankidetzako zerbitzua; Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorra; NGGKEa, GGKEak eta boluntario-programa propioak dituzten beste entitate batzuk			-Boluntariotza bultzatzeko egin diren ekimenak ebaluatzea, eta asebetetze-maila altua islatzea, bai boluntarioen artean bai boluntarioak hartu dituzten entitateen artean

	estrategia gisa		-Nazioarteko lankidetzako boluntariotza bultzatzeko 2 ekimen gauzatzea, gutxienez, GNLUPak berak bakarrik eta/edo, ahal bada, honako hauekin elkarlanean: Nafarroako Gobernuko Lankidetzako zerbitzua; Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorra; NGGKEa, GGKEak eta boluntario-programa propioak dituzten beste entitate batzuk
--	------------------------	--	---

8. AURREIKUSITAKO AURREKONTUA MODALITATE ETA TRESNEN ARABERA


Jarraian, II. Plan Zuzentzailearen aldiran **aurreikusitako modalitateen arabera Udal Programaren aurrekontuaren banaketa erlatiboa** aurkezten da, labur-labur eta modu bisualean, aurreko atalean ezarritako helburuekin bat. Hori dela-eta, kontuan izan beharra dago banaketa hori **ahalegin gisa eta malgutasun gradu batekin** ulertu behar dela, bereziki kontuan hartuta orain ez dela posible datozen urteetan Udal Programara bideratuko den aurrekontu zehatza ezagutzea, eta, horregatik, ezta ere portzentaje ezberdinek urte bakoitzean suposatuko duten zenbateko zehatza; horrek aldaketa arinak egitea ekar lezake zenbait kopuru finko emateko konpromisoa betetzeko (adib. NGGKEKarekiko hitzarmena, Nafarroako Toki Funtsari egindako ekarpena, Udal Programa bera kudeatzeko gastuak, etab.).

Distribución tentativa y flexible de presupuesto del PMCID por modalidades durante II Plan Director



12. irudia: II. Plan Zuzentzailearen aldirako aurreikusitako GNLUParen aurrekontuaren gutxi gorabeherako banaketa, modalitateen arabera

Distribución tentativa de presupuesto para convocatorias de subvenciones a ONGD



13. irudia: II. Plan Zuzentzailearen aldirako aurreikusitako GNLUParen dirulaguntza-deialdietarako aurrekontuaren gutxi gorabeherako banaketa

Tresnei dagokienez, **aurreikusita dago Udal Programaren guztizko aurrekontuaren % 83 inguru bideratzea GGKEendako dirulaguntza-deialdietara** (bai giza garapenerako proiektuak egiteko Hegoaldean bai garapenerako hezkuntzakoak egiteko Iruñean). Aurrekontu hori eskema honekin bat banatuko litzateke, gutxi gorabehera eta malgutasunez, II. Plan Zuzentzaileak hartzen dituen 4 urteetan zehar

9. II. PLAN ZUZENTZAILEAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

9.1 Urteko Plan Operatiboak

I. Plan Zuzentzailearekin egin bezala, II. Plan Zuzentzaile honen helburu estrategikoak eta jomuga taktikoak zeregin operatiboetan gauzatuko dira **Urteko Plan Operatiboan** (UPO) bidez. Plan horiek **Udal Programak eginen ditu II. Plan Zuzentzaile hau garatze aldera**. UPO horietan, unean uneko baldintza zehatzak, testuinguruaren aldaketak, baliabideak eta benetako aukerak hartuko dira kontuan; hartara, Plan honetan aurreikusitako adierazleak ere egokitu daitezke, aurreko urteetako berrikuspenaren eta betetze-mailaren arabera.

Oro har, UPOek I. **Plan Zuzentzailean aurreikusitako egitura eta eduki berberak izanen dituzte**, eta honako hauek jasoko dituzte: aldi bakoitzerako finkatutako emaitzak lortzeko beharrezkoak diren **ekintza zehatzak** (aldi bakoitzean abiarazi beharreko deialdiei eta ildo nagusiei buruzko xehetasunak barne), era labur, erraz, zehatz eta sistematikoan; kasuan kasu **inplikaturak dauden arduradunak eta eragileak**; agindu diren **baliabide zehatzak**, eta jarraitu beharreko **urteko egutegi** xehatua.

Urte bakoitzeko UPOak eta aurreko urteko memoria³ aldi berean prestatuko dira, urtariletik apirilera bitarte, memoriaren ondorioak erabili ahal izateko eta urtea hasitakoan erabat operatibo egoteko. UPO horiek **GNLUParen talde teknikoak prestatuko ditu, eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluari aurkeztuko zaizkio** organo horrek urterik urte egiten duen lehen bileran. Horren ostean, hedatzeko lana (bai Udalean bai herritarren artean) eginen da, eta finkatutakoa aplikatuko.

9.2 Urteko memoriak

Asmoa da Plan Zuzentzaile hau (I. Plan Zuzentzailea bezala) erreferentzia-esparru bat izatea Iruñeko Udaleko lankidetzaren ildoei eta oinarritzko printzipioei dagokienez, baina baita **tresna operatibo bat ere**, Udal Programari **helburuen, jomugen eta adierazleen jarraipena egiteko aukera** eman diezaion. Horretarako, aginte-koadro batzuk finkatu dira dokumentu honetako 7. atalean, zeinetan jomuga eta adierazle zehatzak finkatu baitira urterik urte.

Bestalde, 9. atalean **Programak urte bakoitzaren hasieran prestatzen dituen Urteko Plan Operatiboak (UPO)** aipatu dira, ekintza, egutegi eta jomuga zehatzagoak izateko II. Plan Zuzentzaile honetan finkatu diren helburu orokorragoen barnean.

Hortaz, jarraipenaren barruan, **Udal Programak** aldian behin eta modu jarraituan aztertuko du **UPO horiek zer neurritan betetzen ari diren**. Jarraipen horren irudikapen zehatz gisa, Udal Programak urteko memoria bat eginen du urte bakoitza amaitutakoan, I. Plan Zuzentzaileak iraun bitartean egindako memorietan jasotako egitura eta eduki bereberari jarraituz.

Udal Programak otsailetik apirilera bitarte prestatuko du urteko memoria. Memoria hori eta hurrengo urteko UPOak **Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluari aurkeztuko** zaizkio, aztertu eta iritzia eman dezan. Ondoren, jakitera emanen da eta GGKEen, herritarren eta Udaleko beste alorren artean hedatuko da.

³Ikusi urteko memorien kontzeptua, edukia, helburuak eta irismena Plan honetako 9.1 atalean

9.3 Plan Zuzentzailearen ebaluazioa

Ebaluazioak II. Plan Zuzentzailearen helburu eta jomugen multzotik kanpo begiratzea dakar. Une puntual zehatzetan egiten da eta Ebaluazio-txosten batean jasotzen da, aurreko apartatuan aipatutako jarraipena ez bezala, zeinak izaera jarraia baitu, urte bakoitzerako aurreikusitako jarduerari buruzkoa baita, Udal Programak berak gauzatzen baitu eta urteko memorietan jasotzen baita.

Zehazki, II. Plan Zuzentzailearen ebaluazioa hura amaitzen denerako aurreikusita dago, lau urteko indarraldia amaitutakoan. Ebaluazioan Udal Programak eta kanpoko bideratzaileek zuzenean parte hartuko dute, eta prozesua bideratu eta dinamizatzeko duten adituak kontratatuko dira horretarako.

II. Plan Zuzentzaile honen ebaluaziorako ikuspegia parte hartzekoa izanen da, eta erabiliko dira **tresna kualitatiboak** (GNLUPko erregistro eta estatistiken analisia, finantzatutako proiektu eta hitzarmenen analisia, testuinguruari buruzko dokumentazioa aztertzea, galdetegi masiboak, etab.) zein **kuantitatiboak** (elkarrizketak Udal Programako taldearekin eta Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluko kideekin, elkarrizketak eta lantegiak GGKEekin, Udaleko beste alor batzuetako arduradunekin eta Iruñeko lankidetzako beste funtsezko eragile batzuekin). **Aztertu beharreko adierazle nagusiak II. Plan Zuzentzailean proposatutakoak izanen dira**; hala ere, taldeak dokumentu honetan **jaso ez diren beste adierazle edo alderdi batzuk** aintzat hartu ahal izanen ditu, baldin eta ebaluaziorako garrantzitsuak direla frogatzen bada.

Azken ebaluazioak ardatz izanen ditu II. Plan Zuzentzailean aurreikusitako **helburu eta jomugen betetze-maila**, bai eta Udal Programan, GGKEetan eta inplikaturako gainerako funtsezko eragileetan izan duen **eragina** ere. Hala ere, **koherentzia/egokitasuna** ere aztertuko da, helburuen eta adierazleen egokitasun- eta ebaluagarritasun-mailari dagokionez, bai eta **jasangarritasuna** ere, jasangarritasun gisa ulertuta Planaren lorpen batzuk denboran zehar mantentzeko gaitasuna.

Horren guztiaren ondorioz, ondorioak, ikasbideak eta gomendioak jasoko dira bi helbururekin: batetik, Udal Programak egindakoaren **kontu-emate** gisa balio izatea GGKEen, Udaleko gainerako alorren eta herritarren aurrean; eta bestetik, hurrengo III. Plan Zuzentzailea prestatzeko oinarria izatea, oraingoa amaitutakoan.

Bi kasuetan, hala erdiko nola azken ebaluazioa **Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Kontseiluari aurkeztuko** zaizkio, aztertu eta eztabaidatu ditzan; ondoren, Udal Programaren ohiko bideetan **argitaratu eta hedatuko** da: webgunea, hedabideak, lantegiak...

ERANSKINA: KONTSULTATU DIREN DOKUMENTUAK

GNLUPAREN BARNE-DOKUMENTUAK

- Iruñeko Udalaren Garapenaren aldeko Lankidetzaren I. Plan Zuzentzailea
- Udal Programaren urteko jardura-memoriak 2018tik 2021era
- Urteko Plan Operatiboak (UPO) 2018tik 2021era
- GNLUParen zerbitzu-gutuna
- Zerbitzu-gutunaren jarraipena 2019an eta 2020an
- I. Plan Zuzentzailearen jarraipen adierazlea 2019an
- GNLUParen dirulaguntzen oinarriak eta deialdiak
- 2018tik 2021era bitarte onetsitako hainbat urterako programak Hegoaldeko Toki Entitateekin
- 2019tik 2021era bitarte onetsitako hainbat urterako programak Garapenaren eta Herritartasun Globalaren aldeko Hezkuntza proiektuak egiteko
- Udal Programaren datu baseak eta barne-erregistroak
- Iruñeko Garapenaren Aldeko Lankidetzaren I. Plan Zuzentzailearen kanpo-ebaluazioa
- GNLUParen eta NGGKEKren arteko elkarlanerako hitzarmenaren kanpo-ebaluazioa

KANPOKO BESTELAKO AGIRIAK

- Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailea (2021-2024).
- Iruñeko Udalaren Berdintasunerako III. Plana
- Espainiako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea (2018-2021).
- AECIDen 2021erako ekintza-plana
- 2030 Estrategia: Iruñeko Hiri Agenda
- Garapenerako Laguntza Ofizial autonomikoari buruzko txostena: Egikaritze-datuak, 2018 2019 (EGGKEK)
- Espainiako Lankidetzak COVID-19aren krisiari erantzuteko emandako erantzun bateratuaren estrategia
- Lankidetzak deszentralizatua Espainiako lankidetzak sistema berri batean: Garapenerako GKEen Koordinakunde Autonomikoen Sareak EGGKEKren jarrerari egindako ekarpena (2020)
- Lankidetzak sistema berri bat mundua eraldatzeko (EGGKEKren txostena, 2021)
- Valentziako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailearen azken ebaluazioaren txostena (2017-2020)
- Garapen Jasangarrirako Politiken Koherentzia Indizearen txostena 2019
- Bizkaiko Foru Aldundiaren IV. Lankidetzak Plana
- Galiziako Lankidetzaren IV. Plan Zuzentzailea
- Gerra Ukrainian: mundu mailako deia bakea eraikitze eta garapenean inbertitzeko (Nazio Batuen Garapenerako Programa 2022)